



HERNANI

2015

HERNANI 2015

UDAL ARTXIBO ZERBITZUA
SERVICIO DE ARCHIVO MUNICIPAL





HERNANI

2015

HERNANI 2015



UDAL ARTXIBO ZERBITZUA
SERVICIO DE ARCHIVO MUNICIPAL

22. URTEKARIA 2015
XXII ANUARIO 2015

Azala: **Jesús Mari Gomez "Txuso"**.
Diseinu eta maketazioa: **GRAFIKOKI**
Lege-gordailua: SS-403-1993

AURKIBIDEA-INDICE

1.	Borroka, borroka eta borroka; aurrera eginez, PAUSOKA	08
	Leire Goñi Iradi	
2.	Emakume ezkutatuak, rol onartuak. Zergatik ez dira emakumeak aipatzen herriko historian?	12
	Ixiar Pagoaga Soraluze	
3.	Las canteras molineras en la cuenca del Urumea	17
	Javi Castro (Aranzadi Zientzia Elkarte, Etnografia)	
4.	Marcelo Usabiaga, bizitza osoa borrokan	25
	Urko Apaolaza Avila	
5.	Elur-Txoriko elur-txoiyaren arrastoei segika	28
	Iñaki Sanz-Azkue	
6.	“Burbunak eta Etsayak” dokumentala. Hizkuntzari luparekin begiratzen zaionean...	35
	Eñaut Agirre Goia (DOBERA Euskara Elkarte)	
7.	Hiazinto Fernandorena Setien: Arantzibiako semea, baina Hernaniko baserrietan solaskideak topatutako	38
	Pello Joxe Aranburu Ugartemendia	
8.	Jon Zabaleta	41
9.	Manuel Yaben, mende oso baten begirada	45
	Joxan Goikoetxea Maritxalar	
10.	Agustin Adarraga: “Hernanira itzultzen naizenean etxera bueltatzen naizela sentitzen dut”	53
	Esti Zeberio Zubelzu	
11.	KANTUZ Abesbatzak, 25 urte	56
	Nuria Barba eta Marirro Yeregui	
12.	Crónica 2013ko kronika (II)	64
13.	Crónica 2014ko kronika	79

AGURRA

2015ean gure herrian, Hernanin, gertatutakoak edota aurten gertatu gabekoak ere, baina gure historiaren parte diren gertaera eta bizipenak jasotzen ditu urtekari honek. Hamaika artikulutan beste hamaika lagunek beren ekarpena egin dute, eta bertan gure herriko historia, politika, kultura, hizkuntza eta gai sozialen inguruan idatzi dute. Gure eskerrik beroenak beraiei eta bereziki urtea joan eta urtea etorri, behin eta berriz beraien lana eskaintzen digutenei, gure herria, Hernani, hobeto ezagutu dezagun.

Esan bezala, gure herriko historia hobeto ezagutzeko idatziak ditugu ale honetan: pertsona borrokalariei buruzko artikulak, baina ez soilik borrokalari ezagunena, baita ezkutuko borrokalariena ere, gure herriko historiaren hutsuneak aldarrikatzen dituztenak, emakumeen lana eta garrantzia azpimarratuz adibidez; edo egunerokotasunean haurren bizi baldintzak hobetzeko lanean ari diren famili eta elkar-tearenak. Gure herriko bazterrak eta inguruak ezagutzeko lanak; baita hizkuntza arlokoak ere, euskara babestu, landu eta gorde duten hainbat lagunen bizitzak eta pasarteak ezagutaraziz. Eta ezin ahaztu kultur arloko lanak, hauetan ere artisten bizitzak eta urtemugak medio herriko kultur aberastasunaren berri jasotzen dugulako urtekari honetan.

Era askotako irakurgaiak beraz, herritar askoren interesekoak izango direlakoan. Gogoz eta patxadaz goza dezazuela irakurtaldiarekin.

Hernaniko Udal Gobernu Taldea

BORROKA, BORROKA ETA BORROKA; AURRERA EGINEZ, PAUSOKA*

*www.pausokaelkartea.org

Leire Goñi Iradi

Eslogan bat izan zitekeen, baina ez. Hainbat hernaniar eta gipuzkoarren egunerokoa da; PAUSOKA Elkartea osatzen duten 70 familien egunerokoa, hain zuzen. 2012an sortu zuten Elkartea behar bereziak dituzten umeen gurasoek, eta 2014an Gipuzkoako aurreneko errehabilitazio zentroa ireki zuten Hernanin. Zailtasunak zailtasun, gelditu gabe, hazten ari dira, pausoka-pausoka.



2014ko otsailean inauguratu zuten PAUSOKAko errehabilitazio zentroa, Etxeberri auzoan.

Denbora gutxian asko hazi da PAUSOKA Elkartea. Maite-der Requejo lehendakariak gogoan du nola hasi ziren: “Gu 12 familia elkartu ginen, denon artean fisioterapeuta bat kontratatu ahal izateko. Etxez etxe hasi zen lanean, baina gero eta ume gehiagok eskatu zuten zerbitzua, eta ez zion denborarik ematen. Orduan, bere etxean hartu gintuen. Baina hori ere ez zen egokiena, eta horregatik, lokal bila hasi ginen. Hernanin oso harrera ona izan genuen”.

Hernaniko Udalak lokal bat eskaini zien Etxeberri auzoan. 2014ko otsaila bukaeran inauguratu zuten. Horrela, gero eta ume gehiago bildu ziren bertan, fisioterapeutaren zerbitzua jasotzeko; 34 ume baziren, ordurako: Hernani, Usurbil, Lasarte, Irun, Urnieta, Donostia... eta beste hainbat herritakoak. Horrek, toki gehiagoren beharra sortu zien, eta Udalak, azkenean, lokal horren inguruan zeuden gainontzeko lokalak ere PAUSOKAren esku jarri zituen. “Gai- nontzeko elkarteei beste leku bat eman zien, eta gu pisu osoarekin gelditu ginen”, azaltzen du Maite-der Requejok.

Baina zaila da behar guztiak asetzea, eta horregatik, eten- gabe lanean, eta etengabe hazten ari dira PAUSOKA. Gaur egun, fisioterapia kraneosakral eta funtzionala ematen dira bertan, osteopatia eta psikomotrizitatea lantzeko; logopedia zerbitzua ere badago; eta baita te- rapia okupazionalak ere, garapen neurologikoa eta in- tegrazio sentoriala lantzeko. “Horrez gain, material asko Europatik ekartzen ditugu: eserleku ergonomikoak, ordenagailu egokituak...”, azaltzen du Requejok. “Eta orain, kontratazio zailena izan dena lortu dugu: psikologia zerbitzua. Lan handia eta garrantzitsua da psikologoarena guretzat, eta ez umeentzako bakarrik”.

GURASOENTZAKO TOPALEKUA

PAUSOKA Elkartearen lokalera gerturatzean, erraz uler- tzen da zergatik den inportantea psikologo bat. “Gainont- zeko terapeutek ere, askotan, frustrazio handia senti de- zakete, ia aurrerapenik lortzen ez denean. Edo kognitiboki ondo, baina fisikoki gaizki dagoen ume batek galderak egiten ditu, eta hori kudeatzen jakin behar da; ‘zergatik niri?’ galdetu dezake. Era berean, familia asko hautsi egiten dira honen aurrean, azken batean, espektatibak, ilusioak, aldrebestu egiten baitira. Bikote asko banandu egiten dira. Edo rolek zailtasunak eragiten dituzte; badira umeari gogor egiten diotenak, eta baita burbuila batean sartzen dituztenak ere. Eta ume horien anai-arrebak ere hor dau- de; estres handia jasan dezakete”, dio Requejok. “Psikolo- goaren arretan derrigorrezkoa behar luke gureak bezalako familientzako. Gutxiago hautsiko lirateke. Aurreneko aldiz guraso izatea zaila bada, dudak sortzen badira, pentsa, ho- rrelako zerbait gertatzen denean!”.

“Kognitiboki ondo, baina fisikoki gaizki dagoen ume batek, galderak egiten ditu, eta hori kudea- tzen jakin behar da; ‘zergatik niri?’ galdetu dezake”.

“Familia asko hautsi egiten dira honen aurrean, azken batean, espektatibak, ilusioak, aldrebestu egiten baitira. Bikote asko banandu egiten dira”.

Psikologo lan hori, ordea, gurasoen artean ere asko lan- tzen dute. Lokalean bertan nabari da familia hauen egu- neroko borroka, eta horrek eragiten duen desgastea. Pa- silloan topo egiten duten gurasoek elkarren berri jakin nahi izaten dute, denek behar baitute, noizean behin, barrua hustu. “Aulki berria erosi diozu umeari, ezta?”, gal- detzen dio batek besteari. “Ez, pieza batzuk aldatu behar izan dizkiot, baina orain ez du merezi berria erosteak, las- ter beste bat beharko baitu”. “Eta laguntzak lortu dituzu?”, horixe dute askotan, kezka iturri nagusia. “Kontu korron- te potoloa, horixe behar dugu!”, diote barrez, egoeraren zailtasunari aurre egin nahian.

“Kontu korronte potoloa, horixe behar dugu!”

“Gasteizen, Madrilan, Galizian... izan gara, errehabilitazio- etan, eta gastu horiek ez zaizkigu errenta aitorpenean sartu! Hori bai, guk ordaindutakoari esker haurrak hobe- ra egiten badu, dependentzia gradua jaitsi egiten diote, eta horrekin, diru-laguntza. Estatuari merkeago ateratze- ko ordaintzen dugu!”, kontatzen du beste batek. Etxea- rekin duten arazoaren berri eman du ondokoak: “Etxea salgai jarri dugu, ezin baitzen egokitu. Baina dagoene- ko etxe bat badaukagunez, ezin dugu ETXEBIDEN izena eman babes ofizialekoen zerrendan. Beraz, ordaindu be- har ditugu balio ez digun eta oraindik saldu ez dugun etxearen hipoteka, erabiltzen dugun etxearen alokairua, eta umearen errehabilitazioak!”

ERREHABILITAZIO ZENTRO, ETA OASI

Etengabeko borrokan ari dira familiak. “Etap bakoitzak ardura bat gehiago dakar”, azaltzen du Requejok. “Hau- rra hazi egiten bada, garapen arazo berriak sortuko dira. Hazten ez bada, berriz, agian ondo elikatu gabe dagoe- lako da, edo beste arazoren batengatik”.

Hori guztiagatik, PAUSOKA Elkarreak ezinbesteko papera betetzen du familia hauen egunerokoan. “PAUSOKA, ni- retzako, normaltasun leku bat da”, dio Requejok. “Irtenbi- deak ematen dizkigun tokia da; tratamenduak lortzen ditugu, konfiantza ematen digu bertako profesionalak oso onak direlako, eta lagun elkartea ere bada, gurasoen- tzako. Emozio asko biltzen dituen lekua da”.

“PAUSOKA, niretzako, normaltasun leku bat da”.

Iban eta Amaia ere ados daude. “PAUSOKA euskarri oso garrantzitsua da, tokatu zaigun ibilbide zail honetan. Ulertu, babesa eman eta laguntzen digun giza talde bat aurkitu dugu bertan”. Markelen gurasoak dira, Amaia eta Iban. Garun paralisia dauka Markelek, eta ondorioz, ez dauka mugimenduaren kontrolrik. “Horregatik, estimu- lazio handia behar du: hidroterapia, fisioterapia, terapia okupazionala. Helburua da ahalik eta independenteen izan dadila. Hazten den heinean behar berriak sortzen dira, eta laster, etxea eta ibilgailua egokitu beharko di- tugu”.

“Ulertu, babesa eman eta laguntzen digun giza talde bat aurkitu dugu PAUSOKAn”.



Aimarrek terapia kraneosakrala jasotzen du, besteak beste.



Terapia okupazionala da Markelek jasotzen duen terapietako bat.

Maiteder Requejo, berriz, PAUSOKAko lehendakari izateaz gain, Aimarren ama ere bada. “Jaio eta 15 egunetara, Aimarrek epilepsia krisi bat izan zuen, eta 3 hilabete pasa zituen ospitalean ingresatuta. Garun malformazioa dauka; motrizitate arazoak ditu. Ez du hitz egiten, komunikazio arazoak ditu... Mendekotasun handia dauka”.

ONARPENA; AURRENA, ETXEAN

“Ez daude gaixo; horrelakoak dira. Diferenteak direla? Bai. Baina denok gara diferenteak. Beste behar mota batzuk daukate, eta horretan ari gara borrokan; beraien beharrak asetzeko behar diren baliabideak egon daitezen, gu

denok ere gizartearen parte garelako”. Garun paralisiren bat edo gaixotasun degeneratiboren bat duten haurrak, autismoaren espektroaren barruan daudenak... dira PAUSOKAko zerbitzuak jasotzen dituztenak; behar bereziak dituztenak eta errehabilitazioaren beharra daukatenak. “Guk sintomatologiarekin egiten dugu lan”, dio Requejok. “Inportantea da jakitea zein den patologia, baina patologia bera duten haurrek sintoma desberdinak izan ditzakete, eta gauza desberdinak egiteko gai izan daitezke”.

“Ez daude gaixo; horrelakoak dira. Diferenteak direla? Bai. Baina denok gara diferenteak. Beste behar mota batzuk daukate”.

Markel eta Aimarrena kasuetako batzuk dira. Amaia eta Ibanek “inpotentzia eta amorrua” sentitu zituzten Markelen egoeraren berri jakitean. “Erditzean oxigeno falta izan zuen garunean, eta horrek sortutako lesioa da Markelek daukana, eta saihestu zitekeen. Ondoren, egoera onartu eta lanean hasi behar izan genuen; diagnostikoa jaso eta komenigarriak ziren terapien inguruan informazioa biltzen hasi ginen. Hasieran ASPACEko arreta goiztiarrera jo genuen, OSAKIDETZAK bideratuta. Gero, PAUSOKA ezagutu genuen, eta bazkide egin ginen, terapia eta tratamendu gehiago jaso ahal izateko. Osasungintza publikoak laguntzen du, baina ez nahikoa. Tratamendu asko ez ditu beregain hartzen, eta gure aurrezkiekin ordaindu behar ditugu; horrek eragin handia dauka familia ekonomian”.

Maiteder Requejo ere iritzi berekoa da. “Publikoa izan behar du, espezialistak oso garestiak baitira. Horretan oso garrantzitsua da arreta goiztiarra; prebentzioa da. Ume askok, goiz estimulatzeko hasiz gero, besteen tankeran garatea lortzen dute; gero eta lehenago hasi, hobe. Baina oraindik Gipuzkoan ez da bukatu arreta goiztiar hori zabaltzeko eta bermatuko duen dekretua”. Hori guztiaren alde lanean hasi baino lehen, egoera onartzeak garrantzia handia du. “Markelek orain 6 urte dauka. Askotan pentsatzen dut onartua daukadala, ondo daramadala. Baina batzuetan, elkartera datorren jende berria ezagutu eta hondoratu egiten naiz, haien esperientzien berri jakitean”.

“BORROKA, BORROKA ETA BORROKA”

Gaur egun, 0 eta 18 urte arteko umeek ematen zaie zerbitzua PAUSOKAn. Lan handia egin dute gurasoek errehabilitazio zentroa sortu, mantendu eta handitzeko, baina lan handia dute oraindik, egiteko. “Borroka, borroka eta borroka. Hori da egiten duguna”, dio Requejok. “Askotan, ematen du fabore bat egiten digutela, baina aizu, gure umeek ere eskubideak dituzte! Askotan etsita sentitzen gara. Desgaste politika erabiltzen da. Baina firme jarraitu beharra daukagu”.

“Askotan, ematen du fabore bat egiten digutela, baina aizu, gure umeek ere eskubideak dituzte!”



Pausoka ere korrika egin daitekeela erakutsi zuten, KORRIKA Hernanitik pasa zenean.

Hemendik aurrerako erronkak ez dira txikiak, eta gizarteak horren jabe egin behar duela ikusten dute PAUSOKAko gurasoek. "Gizarteak ez daki ezer. Adibide bat jartzearen, aurten, KORRIKA aterara gara. Baina ez zekiten nola egin. KORRIKA iristerako prest ginen, eta gurpildun aulkiak ikustean, kendu egin behar zirela esaten zuten, KORRIKA pasa zedin. Baina gurpildun aulki horietan zeuden umeak ziren testigua hartu behar zutenak!"

Hori da, hain zuzen, PAUSOKAren beste alor bat: sentsibilizazioa. "Familia bakoitzak bere inguruan eragiten du. Umeak eskolatan integratzea ona dela azpimarratzen dugu. Gure haurrek ez dute fisika kuantikoa ikasiko. Baina gure umeak eskolan egotea inportantea da, batez ere, gainontzeko ume, guraso eta hezitzaileentzako. Horrela, beste errealtate hori ere ezagutzen dute. Horrela, pixkanaka, lortuko dugu denok kontuan hartzea, adibidez, herrian gauzak antolatzen direnean. Udalekuan, esaterako, begirale espezializatuak kontratatzea izango litzateke onena, gure umeak ere apuntatu ahal izateko, baina tokatzen den egoeraren aurrean zer egingo duen pertsona bat berarekin egongo dela bermatuta. Noski, lan hau guztia egiteko, gurasoek ere onartua eduki behar dugu egoera. Eta, ez badut onartzen, zer? Zilegi da!"

Eta udalekuena, adibide bat besterik ez da. Kirol egokitua egiteko ere arazoak topatu dituzte, ez dutelako aurkitzen behar bereziak dituztenentzako egokitutakorik. "Agian, igerilekua itxi egin beharko litzateke gure umeak dauden bitartean, edo uraren tenperatura igo. Edo bestela, neoprenoarekin sartzan utzi. Baina ez diezagutela ezetz esan hasieratik! Gu ere laguntzeko gaude, borrokatzeko, diru-laguntzak behar diren tokian eskatzeko. Bestela, zer? Ez dago gure familientzako esparrurik, eta kitto?"

Hala ere, Requejok Hernaniko Udalaren prestutasuna eskertzen du behin eta berriro. "Hernaniko alkatea, Ongin-

tzako zinegotziak, beti egon dira prest laguntzeko, eta behar duguna emateko. Hernaniko udalekuan, adibidez, badaude gure umeekin egoteko begiraleak. Baina beste herrietan ez. Hernanin, badaude parke egokituak. Beste toki batzuetan ez. Eta saiatzen gara beste herrietan ere; azken batean, PAUSOKAko errehabilitazio zentroa Hernanin dago, baina hona etortzen diren haur asko beste herrietatik ere etortzen dira. Denek egin beharko lukete zerbait, eta baita Foru Aldundiak ere, gehiago".

ETORKIZUNA?

Sentsibilizazioaren alde, eta behar dituzten laguntzak lortzeko, han eta hemen lanean aritzen dira: diru-laguntza eskaerak behin eta berriro bete; eskolako zuzendari eta irakasleekin hitz egin umeek dituzten beharren inguruan; erakunde publikoetan laguntzak eskatu umeen eguneroko bizitza errazten lagundu dezaten; hango edo hemengo zinegotzi, alkate edo dena delakoarekin hitz egin, arazo baten aurrean, konponbidea bilatzeko behar adina presio egin dezan; egutegiak, kamisetak, sudaderak... saldu edo PAUSOKA eguna antolatu... dirua lortzeko.

Eta hori guztiaz gain, erronka berri bati egin beharko diote laster aurre. "PAUSOKA zerbiztu pediatrikoa ematen du. Badira umeak, kronologikoki 18 urte izatera iritsiko direnak, eta segitzeko aukera eman beharko zaie! Hemendik lauzpabost urtera zer egin erabaki beharko dugu laster. Eta noski, OSAKIDETZAk lokala ikusiko balu, homologatua ez dela esango luke. Egia da. Eta tokirik gabe gaude, gainera. Etengabe saiatzen gara pladurrarekin paretak altxa eta txoko berriak topatzen. Baina ez da nahikoa. Osasungintza publikoak beregain hartu beharko luke hau guztia".

EMAKUME EZKUTATUAK, ROL ONARTUAK

Zergatik ez dira emakumeak aipatzen herriko historian?

Ixiar Pagoaga Soraluze

Nire irakasle lanetan emakumeen absentsiak edo aipamen murriztaileak (amatasuna, etxea, zaintza...) kezkatu naute. Kostata topatu behar dira Erdi Arotik hasita izan diren emakume ausartak eta eremu desberdinetan nabarmendu izan direnak, beraz, irakurri beharrekoak Christine de Pizan (1364-1430) edo Margarita Angulemakoa Nafar Erresumarekin lotura izana, adibide gisa. Testu liburuetan santak edo mojak errazago jasotzen dira: Santa Teresa, Juana de Arco...

Ba horrela joan naiz artxibora, herrian zer dagoen jasota galdeginez neure buruari: ezkutatzen gara edo gaituzte?

Garai bat aukeratzekotan II. Errepublika aproposa iruditu zait, non emakumeek botoa ematea lortzea-rekin batera zenbait eskubide lortu zituzten: abortua, dibortzioa eta berdintasunaren aldeko urrats handiak lege mailan, emakume eta gizonentzat. Eta Errepublika garaiko aipamen ezarengatik Gerra Zibilaren hasierari heldu diot.

Nire asmoa, izanak izena duenez, izenen eta emakumeak egindakoaren bila sartu naiz Hernaniko Agiritegian, eta garai berri eta aurrerakoi horretan honekin aurkitu naiz.



Kutxa Fototeka

1933. urtean izandako hauteskundeen irudia, emakumeak ilaretan bozka emateko prest.

II. ERREPUBLIKA (1931-1936)

Herritar gizonak hauteskunde bidez Errepublika, Eibarraren hasita, aldarrikatzen dute apirilaren 14an.

1931ko apirilaren 22an herriko Udalaren aktetan zenbait aldaketa aipatzen dira: Plaza Nagusia Errepublika izendatu, Alfonso XIII kendu eta berriro Kale Nagusia izendatu, eta euskaraz eta gaztelaniaz izena ipini. Benefizentziako Juntan parekidetasuna eskatzen da, haur hezkuntzako maistrak euskara jakitea...

Telefonistak, maistrak, garbitzaileak eta otorduren bat udal gizonari prestatzen zioten emakume gutxi batzuen izenak agertzen dira. Etxe eta negozioen jabegoa gizonen eskuetan, alargun edo alaba bakarrak izan ezean.

Antolaketa indartzen hasten da Centro de Solidaridad Vasco, Izquierda Republicana, Partido Nacionalista Vasco, Emakumeak... eta auzoetarako eskolak, gau eskolak, antzerkiak, poesia emanaldiak... Baina bi absentzia edo hutsune nabarmentzen joan dira nire irakurketak aurrera egin ahala: dena gazteleraz eta emakumeen erreferentziarik gabe.

Garaiko emakumeen egoera adierazten duten zenbait datu:

- 1931ko zerrendetan, 1.400 hautesle.
- 1932ko erroldan 6.280 biztanle ziren herrian.
- 1932ko zerrendetan, 3.233 hautesle, emakumeak sarritzen dira, eta adina jaisten da 23 urtera.

Eta **irakaskuntza lanbideari** dagokionez, 1933ko estatistikan 21 irakasle azaltzen dira:

- Kaskoan: 16 maisu-maistra.
- Fagollagan: maistra 1.
- Pagoagan: maistra 1.
- Jauregin: maistra 1.
- Floridan: maistra 1.
- Lasarten: maistra 1.

21 irakasle, 14 maistra eta 7 maisu. Gipuzkoako buletin, 1931an 529 mutil eta 522 neska daude eskoletan, eskolaurrean, 702 neska-mutil.

Auzoetako irakasle guztiak, maistrak. Kategoriak zeudela dirudi!

Eskola derrigorrezkoa zen 14 urte arte, baina eskolatze estatistiketan ikusten da 12 urtetik gora gutxi joaten zirela eskolara, lana, senideak zaindu beharra eta antzeko eginkizunak medio. Asistentzia Udalak kontrolatzen zuen, maistrek Udalean entregatzen baitzuten asistentzi orria.

Orduan ere maistrak gehiengoa zuten eskolan, baina Eusko Ikaskuntzak antolatutako "Bilingüismo kongresu"ra bi maisu joan ziren. Beste horrenbeste pedagogiako bileretara. Erakunde berberak antolatutako kurtso baterako bekak ere bi gizonezkoek eraman zituzten.

Industriari dagokionez, 1940 aurretik Hernanin egon ziren fabrika esanguratsuenak hauek dira:

- Remy (30 langile).
- Santiago Carrero (33 langile).
- Fabrica de tejidos del Pirineo.
- Biyak-Bat (75 langile).
- Mendia (120 langile).
- Montes (35 langile).
- Fundiciones del Norte (75 langile).
- Aristegui, Cerámicas de Hernani (45 langile).
- Cerámicas San Miguel.¹

Ettxeko lanak, neskameak, tabernetakoak, dendetakoak ez dira inongo dokumentuetan agertzen.

Remy, Carrero eta paper fabriketan emakume askok egin zuen lan.

Erreferentzi modura, Gipuzkoan 1900.ean honela bananduta agertzen dira lan sektoreetan gizon-emakumeak²:

- Nekazaritzan: gizonen %52,2; emakumeen %14,8.
- Industrian: gizonen %29,0; emakumeen %37,6.
- Zerbitzuetan: gizonen %18,6; emakumeen %47,7.

1936KO UZTAILA ONDOREN

Desilusio apur batekin, administrazio aktak, hauteskundeetako zerrendak, pertsonala, patrimonioa, eta harreman zibilak... irakurri ondoren 1936ko altxamendu faxistaren ondorengo dokumentuetara (1936ko irailean) jotzen dut: "Gerra eta gertakizun politikoak". Garbiketa-prozesu atalean irizpide garbiak bidaltzen dituzte Barne Erregimeneko Batzordetik. Informe eskariak Gobernu Militarretik, Guardia Zibiletik, karteletatik... alkateari zuzenduak dira.

1936ko abenduaren 6tik 1937ko abenduaren 13ra 151 emakumeri buruzko informeak eskatzen dituzte eta alkatetzaren erantzunak daude.

Artxibategian dauden pertsonen datuak partzialak eta hutsunez beteak dira:

- ANV.
- Sozialistak.
- Centro Solidaridad Vasco: 331 afiliatu, 68 emakumezkoak.
- Solidarios Vascos: 73 afiliatu gizonetzko.
- Emakumeak: 66 afiliatu, 10 "absente".
- Izquierda Republicana: 19 gizon afiliatu.

Ikaragarri esanguratsuak garai honetako alkateek emakumeei jartzen zizkieten balorazioak: "rojas indeseables", "milicianas,... lo peor de lo peor", "comunista, hizo entie-


rro civil a su madre", "muy roja, iba a manifestaciones con el puño en alto, lenguaje soez y blasfemo"...

Eta beste batzuetan: "buena conducta", "conducta intachable"...

Kopuruak honela klasifikatuak daude:

- %60 gorriak, komunistak edo ezkerrekoak.
- %18 abertzaleak.
- %18 apolitikoak edo ezezagunak.
- %4 eskumakoak.

Garbiketa horretan 1937ko irailaren 18an 17 emakume izen-abizenekin, eta 6 ume agertzen dira Lasarteko Falangeren kartzelan.



"Relación de las individuos recluidas en los locales de Falange en el día de la fecha" (1937ko irailaren 18an).

Lortu ditudan 151 izen eta bi abizen, gehienetan; adina 17rena bakarrik azaltzen da, eta horiek gazteak, 2 kenduta. Emakume hauen zerrendak jarriko nituzke, baina ez dakit beraien ondorengoek nahiko luketen, eta emaku-

¹ Garoa Gonzalez Fernandez, 2004. ² INE eta Fundación BBVA-IVIE (Población nº 3).

CLARA LEMA LARUNBE

Ha sido lo peor de lo peor bajo todos conceptos. Asidua concurrente a todas las manifestaciones de carácter comunista, con puño en alto. Se ha distinguido siempre por su carácter exaltado y haber intervenido en protestas de carácter político, incluso dentro de la Casa Consistorial. Activa militancia durante el Movimiento, de las que decían que había que cortar la cabecera a las derechas. Su regreso a la localidad ha causado indignación a todas las personas de orden. Su vocabulario ha sido soez y blasfemo.

Hernani, 11 noviembre 1937, II Año Triunfal.

JA. Alcalde,



ISABEL MUGICA

Era de ideas nacionalistas, formaba parte de la agrupación llamada de EMACUMES, según relación que obra en esta Alcaldía, formada por la Guardia civil, no se ha conocido actuación durante el movimiento en esta villa. Conducta y moralidad ~~exemplar~~ intachables.

Hernani, 11 noviembre 1937, II Año Triunfal.

El Alcalde,



1940ko hamaikadan emakume asko lanean zituzten papegintzan.

meen onarpena lortu nahian zauriak irekitzea ez da nire nahia, beraz, kontraesan honetan urrats bat emanen dut.

Hernanin 120 fusilaturen datuak jaso dira, 9 emakume, eta bederatzia adin eta pertsona-daturik gabe azaltzen dira. Bi adibide: "Zenbait kasutan, aitak edo amak ordaindu zuen errepublikaren aldeko semeren bat izana. Esate baterako, seme komunista izateagatik fusilatu zuten 64 urteko Dominica Artola, eta semeetako batzuk errepublikazaleak izateagatik -beste aldekoak ere bazituen- Petra Heredero, Donostiako etxe bateko atezaina. Horixe da heriotza batzuk azaltzeko aurkitzen dugun azalpen bakarra"².

Fusilamendu eta kartzela goi mailako errepresioa da, gizonezkoei aplikatua. Emakumeek duintasunaren kontrako errepresioa jasan zuten, lotsa eta beldur gordea sorrarazten duena: bortxaketa, ilea zerora moztu, a-kain-belar olioia eman eta kalera atera, desfila arazi...

Lortutako berdintasun eta askatasun guztiak kenduz, gizon nahiz emakumei, askatasun eza, bereziki emakumei: frankismoko emakume eredu umeak egitea, elizaren laguntzarekin (emakume-ama) eta familiako ardatz "pribatua" izatea zen. 1938an Lan Foruak agintzen zuen "liberaría a la mujeres casadas del taller y la fábrica"³.

Aurretik abonatua zegoen emakume eredu hori, Errepublikara garaian ere emakumeen antolaketa independentea eta autonomia ez ziren ongi ikusten. Legeak onartu arren (abortua, besteak beste) aplikatzeko zailtasun izugarriak: "Por muy libertarios que fueran, su padre y sus hermanos, les parecía que las mujeres estaban para servirles las tareas de la casa... protestaba Concha Liaño"⁴.

Gerra garaian prostituzioak %40 gora egin zuen. Emakumeen ia erdia alfabetatu gabea zen. Hala ere emakumeak parlamentura iritsi ziren, langile mugimenduan antolaketa gaitasuna erakutsi zuten, horietako adibide bat Pasionaria izan zen (nahiko gaizki azaldu zaigun emakumea), eta isiltasun historikoarekin hautsiz aldizkari mordoa kaleratzeko gai izan ziren: "Mujeres libres", "Companya", "Emancipación", "Muchachas", "Mujeres", "Noies"...

Nafarroan ikaragarritzko errepresioa jasan zuten, eta jarraituz emakumeen parte hartzearekin desgiziako mugimendu horretan, 229 maistra-maisu izan ziren zigortuak, 146 gizonezko eta 83 emakumezko⁵.

Esan beharrik ez dago, datu hauek ikusi ondoren, emakumeek aukera izan zutenean gizarteko parte aktibo eta publiko bihurtu zirela.

Gaur egun ere horrela ikusten da: subjektu pasiboa. "Gizonak frontean zeuden bitartean, emakumeak, errepresioa beraien haragitan jasan zuten, batzuetan, anaiak errepublikaren aldeko gerrara joan zirelako, bestetan aita izaten zelako gerrara joan zena, edo senarra agian ere bai..."⁶.

1970ETIK AURRERA

Ikasi da jaso eta eman, eta egin bidea. Ezin dugu zero-tik abiatu, oinez aspaldi ikasi zuten emakumeek.

Berriro atzerapenak indartzen (oinarrizko eskubideetan) eta erlijioarekin ezinean dabiltzanez, kontsumoa jainkotu eta amatasuna suspertuz. Botereek Emakumea goraipatuz, ez emakume anitzak, eta itxurak bete. Geuk ere sinesten dugu zaintzan atzerritar bat sartzen denean hemengo emakumea liberatzeko dela, zaintza emakumeen ardura al da? Etxeko lanak emakumeenak al dira? Edo bestela instituzioei eskatzen diegu dena. Norberarena gobernatu behar dugu, gure etxeak ireki, giza sare errealek eraiki. Aita estatuari exijitu bai, baina mendeko bihurtu ez.

Lehen eta orain aldatzen ez den oinarritzko gauza bat dago azpian: emakumea familiaren sostengu nahi da edo behar da. Ez dut uste behar ekonomikoa denik soilik. Lan erreproduktiboa zenbait herrialdetan estatuak beregain hartu du, hala ere familia eredu ezberdinak bere botere eta hierarkia funtzioa mantentzen jarraitzen du. Emakumeen liberazioa ez du lanak, ikasketak... soilik ematen, nahiz eta urrats garrantzitsuak izan.

Ez da sistema patriarkala zalantzan jartzen, hausten... eraldaketa bat eman ahal izateko. Gu geu, emakumeok jabetuz gizarte osoaren egitekoa da oinarritzko aldaketa, hobeto bizitzeko: bortizkeria gutxiagorekin, justizia eta harreman hobeekin, hazkuntzan gehiago gozatuz eta pentsaera askeago bat eraikiz.

Iturriak

- Hernaniko Udal Artxiboa.

Bibliografia

- Mikel Aizpuru (zuzendaria), Urko Apaolaza, Jesús Mari Gómez eta Jon Odriozola: "1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak". Alberdania Memoria 35. Hernaniko Udala, 2007.
- Usoa Barrutiabengoa Olazabal, Nerea Elias Muxika, Garoa González Fernandino eta Arait Rodríguez Guitierrez: "Ahotsak. Emakumeak historian, Hernani (1936-1970)". Hernaniko Udala, 2004.
- Garoa González Fernandino: "Industrializazioa Hernanin". www.kondaira.com, 2004.
- Cándida Calvo Vicente: "La enseñanza en la zona rural guipuzcoana durante el primer franquismo". Vasconia 27, Eusko Ikaskuntza, 1998.
- Urko Apaolaza Ávila: "Aldaba joka. Hernani: ahozko historia txikia (1931-1981)". DOBERA Euskara Elkarte, 2003.
- Mary Nash: "Rojas: mujeres republicanas". Taurus. Barcelona, 2006.
- Llum Quiñomero: "Nosotras que perdimos la paz". Foca. Madrid, 2005.
- Jon Odriozola: "Hernaniko aiene eta ajeak Gerra Zibilaren altxoan" (argitaratu bage, Hernaniko udal artxiboan).
- Begoña Gorospe Pascual: "Orduan eta orain". Hernani 1993 Urtekarian (53-58 orr.). Hernaniko Udala, 1993.
- Eulali Aranburu Urkizu: "Mª Dionisia Liceaga y Aguerre" Hernani 1996 Urtekarian (39-46 orr.); Hernaniko Udala, 1996. "Arriatsuko eskolaren historia" Hernani 2002 Urtekarian (27-35 orr.); Hernaniko Udala, 2002. "Jostunak eta jostundegiak Hernanin" Hernani 2003 Urtekarian (56-60 orr.); Hernaniko Udala, 2003. "Fagollaga auzoko eskola" Hernani 2005 Urtekarian (112-123 orr.); Hernaniko Udala, 2005.
- María José Ruiz Vilas, Jose Mari Eparza Zabalegui eta Juan Carlos Berrio Zaratiegui: "Navarra 1936: de la esperanza al terror" (2 liburuki). Altaffaylla Kultur Taldea, 2003.

³ Mikel Aizpuru, ..., 2007. ⁴ Mary Nash, 2006. ⁵ Llum Quiñomero, 2005. ⁶ María Jose Ruiz Villas..., 2003. ⁷ Urko Apaolaza Ávila, 2003.



LAS CANTERAS MOLERAS

EN LA CUENCA DEL URUMEA

Javi Castro (Departamento de Etnografía de Aranzadi Zientzia Elkarte).

En este artículo se va a describir el proyecto denominado ERROTARRI, proyecto englobado en un programa internacional de superior rango. Se trata de una investigación sobre lugares en donde se fabricaban piedras de molino, lugares que, como veremos, también podemos encontrar en el valle del Urumea.

Artikulu honetan ERROTARRI izeneko proiektuaren deskribapena egingo da. Proiektu hori, nazioarteko mailako programa zabalago batean kokatzen da, eta errotarriak egiten ziren gunek ikertzen ditu. Ikusiko dugun moduan, gunek horiek Urumea bailaran ere aurkituko ditugu.

IMPORTANCIA DEL OFICIO MOLERO

No existe molino que no tenga piedras para moler, sin estas el molino no funciona; es por ello que el molinero es cliente "cautivo" del cantero molero. Hemos de diferenciar, antes de proseguir, las figuras del molinero, y la del molero. El molinero transformaba, en el molino, el cereal en harina. El molero era un cantero que trabajaba la piedra, que transformaba la roca en una muela; era un artesano capaz de fabricar muelas con las rocas del lugar, usando los instrumentos propios del oficio: cuñas, palancas, martillos, picos y almádenas. Picaba las rocas y las ajustaba a la medida necesaria para cada molino.

Elegía "canteras" donde obtener muelas ("errotarriak") de grandes dimensiones (de más de un metro de diámetro, y de espesor superior a 15 cm.); esas canteras se localizaban, generalmente, en zonas montañosas alejadas de los cauces de los ríos, que es donde se asentaban los molinos. Algunas canteras tienen un frente de explotación de hasta un kilómetro (los restos que nos han llegado tienen forma curvada, y con niveles bien definidos).

A medida que se va generalizando el uso de la energía hidráulica para mover molinos, se van usando muelas de

mayor diámetro; ello favorecía la producción de harina, pero, a la vez, requería de una mayor especialización del oficio molero.

Una operación delicada era perforar el ojo o agujero central; un mal golpe o una helada desbarataban el trabajo de varios días, quedando el trozo de muela inacabado en la propia cantera. Lo normal es que encontremos hoy, las piedras rotas y abandonadas, tapadas por musgo y hojarasca, y mimetizadas con la naturaleza, en el mismo lugar de origen.



Las piedras ya fabricadas tenían un elevado coste; en el siglo XVII era de unos 16 ducados (176 reales), equivalente al valor de unas 5.000 tejas, o al de 15 ovejas con sus crías (aproximadamente representaba el 20 % del importe de la construcción del molino).

Las muelas una vez fabricadas en la cantera, eran transportadas hasta los molinos.

Durante la Edad Media y en época moderna, transportar una muela con un peso superior a 500 kilos por aquellos caminos de monte era una labor complicada; debido a ello, hoy podemos llegar a encontrar restos de muelas



Extracción de roca mediante golpe con herramienta. Trabajo en una cantera molera, y tallado sobre la piedra.



Transporte mediante carro. Transporte con narria.

caídos junto a antiguos caminos. Ello nos puede dar pistas sobre el origen de las mismas, no así, sobre su destino. En ocasiones, la distancia a recorrer desde la cantera molera al molino superaba los 100 km., aunque lo normal era abastecerse de las canteras cercanas.

El oficio de cantero molero fue desapareciendo paulatinamente a partir de la segunda mitad del siglo XIX, hasta caer completamente en el olvido. La comercialización de piedras de mayor calidad, transportadas en ferrocarril desde el norte de Francia, y la electrificación, que permitió la instalación de grandes harineras, supusieron la puntilla de muerte a los pequeños molinos de bajo rendimiento.

ORIGEN DE LA FABRICACIÓN DE MUELAS

Desde el Neolítico se usan piedras para moler cereales. Existen restos de piedras para moler cereal en yacimientos de la Edad del Hierro, restos que aportan evidencias de la existencia de molinos de mano, normalmente rotatorios, con muelas de diámetro inferior a los 40 cm. No han dejado rastro en forma de canteras, ni en la toponimia. Aún así, cercana al yacimiento de Bolunburu

(Zalla, Bizkaia), poblado fortificado de la segunda Edad del Hierro, se ha documentado la existencia de una cantera de piedra arenisca, cuyos restos exceden a un uso propio, por lo que se está teorizando con un posible comercio de muelas hacia otros poblados de su área de influencia.

Podemos, por otra parte, avanzar que controlar en origen la fabricación de piedras muelas para los molinos, era, en definitiva, controlar también los molinos; suponía un control “estratégico” sobre la zona.

COMO LOCALIZAR LAS CANTERAS MOLERAS

Debemos tener en cuenta que este tipo de canteras, de baja producción y ya en desuso, han dejado muy poca huella en el territorio, y por lo tanto, no es tarea sencilla su catalogación. La **toponimia**, sin embargo, es una gran aliada en la investigación etnográfica: nombres tales como Errotarrieta, Errotarriko bidea, Errotarrizulo, Argindegi, Las Muelas o El Molar, demuestran una más importante actividad molera en la correspondiente zona, respecto de otros usos (pastoreo) o trabajos relacionados con el bosque.

Otra fuente importante para conocer sobre la existencia de canteras moleras son los **archivos**, tanto privados, como los de los monasterios, como públicos, caso del Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa, en Oñati. Hay que leer detalladamente muchos documentos, la mayoría de las veces tratantes sobre otros asuntos, para obtener unos leves indicios sobre el trabajo molero, que la mayor parte de las veces, pasaba desapercibido. Encontramos honrosas excepciones, como el de las canteras de Andatza, en Usurbil, citadas como propiedad del Monasterio de Orreaga-Roncesvalles desde el año 1388, en conflicto continuo con el poderoso señor de Atxega. Allí, a finales del siglo XVI trabajaron hasta 20 canteros con sus respectivas cuadrillas, en varios frentes de explotación.

El amplio diccionario que publicó el navarro Pascual Madoz a mediados del siglo XIX, es también una fuente indiciaria, aunque sus genéricos y tardíos datos aportan poca concreción.

La **transmisión oral** de personas que han desarrollado su oficio en el monte es también una fuente a tener en cuenta para poder localizar antiguas canteras moleras, y el trabajo a ellas asociado. Pastores, leñadores, carboneros, guardas forestales, cazadores y también montañeros son buenos informantes: conocen bien la zona, y han visto marcas y restos, en lugares poco comunes, que les han llamado la atención.

Tras esa erudita investigación, finalmente, para poder hacer una correcta ficha de catalogación, es indispensable el **trabajo de campo**: visitar la zona para certificar la existencia de algún resto (muelas rotas, alvéolos, marcas de canteros, caminos antiguos, herramientas abandonadas, fondos de cabaña...).

TIPOS DE ROCA Y MUELAS QUE SE PUEDEN ENCONTRAR EN LA CUENCA Y EN LOS MOLINOS DEL URUMEA

Son tres los tipos de rocas adecuadas para fabricar muelas de molinos que se pueden encontrar en esta zona. Dos muy duras, los **conglomerados**, que contienen grandes cantos de río cementados, de matriz cuarcítica; y las **areniscas** triásicas o "hargorriya", cuya granulometría es más fina, y que son algo más fáciles de trabajar por el cantero molero (ambas tienen un origen sedimentario, formadas por la compactación de otras rocas o sedimentos). El tercer tipo de roca es el **granito** procedente del batolito de Aiako Harria, roca plutónica que aunque no es buena para la molienda por fricción, es válida para moler mediante el aplastamiento. La caliza normal o "karaitza" no es piedra adecuada, ni la pizarra o "arbela", aunque determinados tipos de caliza como la lacustre de Trebiño, piedra "blanca" dura y con alto contenido en cuarzo, fueron muy utilizadas.

Además de los tres tipos de roca descritos, también es posible encontrar piedras talladas en forma de muelas, y usadas en molinos, procedentes de otras zonas, más o

menos, cercanas. Es el caso de la piedra arenisca de Igeldo, "Igeldo-harriya", o conglomerado de la zona de Andatza (Usurbil). La piedra de Igeldo es usada comúnmente para fabricar piedras sillar, y pequeñas piedras de afilar o "dezterak", como la existente en Epelerrota. En este molino se ha observado la existencia de roca conglomerado similar a la existente en la zona de Argurutze y de Larrats (Donostia).



Roca de arenisca.



Roca de granito.



Roca de conglomerado de Argurutze.

En Errotaberri (Urnieta) hemos localizado roca conglomerado del tipo Andatza (Usurbil), y también del tipo Trebiño. La roca de Andatza fue explotada desde finales del siglo XIV, y llegaría a la zona por vía fluvial. El transporte por antiguos caminos también está documentado.


CANTERAS EN EL URUMEA

En la cuenca del Urumea se están estudiando este tipo de canteras, ya que el valle presenta una geología adecuada. Son cuatro (4) las canteras moleras que han sido localizadas, las cuatro situadas en la margen derecha de la cuenca. La margen izquierda ha sido menos investigada, aunque los primeros indicios obtenidos apuntan a que sería una zona propicia para su presencia, ya que geológicamente existen piedras tipo conglomerado y arenisca.

En la zona de Larrats (Donostia-San Sebastián, en la zona de Landarbaso, antiguamente término de Rentería, y cer-

ca de los límites con Hernani) se encuentra una cantera de arenisca documentada en el s. XVIII. Un documento fechado en 1726 nos habla de que un vecino de Oiartzun pidió permiso al concejo para explotar dos zonas situadas en jurisdicción de Rentería:

“Francisco de Berrondo Zamora vezino del valle de Oiartzun, dize que en jurisdizion de V.S. en el partido de Berrospín y Larraz ha encontrado dos peñas que a su parecer se pueden sacar piedras de moler trigo y maiz, y para reconocer si seran capaces para la molienda de trigo y maiz suplica a V.S. con todo rendimiento se sirva de darle su permiso para que pueda sacar en ambos partidos de Berrospín y Larraz a dos piedras para el efecto de hazer prueba de su calidad en que recevira la merced que se promete de la grandeza de V.S.”



Situación de las 4 canteras en el Urumea.

A finales del s. XV ya está documentado el sel de "Larratz". Ya en el XVI, en 1554, es vendido por el concejo de Rentería a la hernaniarra familia Ayerdi, pasando dos siglos más tarde a los Marqueses de Roca Verde (familia Moyua). Se ha reconocido la zona, y hemos observado la existencia de buena piedra de arenisca triásica, con algunas marcas de trabajo en diversas rocas, aunque no ha sido encontrado resto alguno de muela para certificarlo con total seguridad. Nuevos datos de informantes o de archivo pueden ayudar a resolver el enigma.

Otras dos canteras se encuentran en la zona de Artikutza (Goizueta), con roca de granito porfídico. Por el tipo de material no sería usada para moler harina en molino convencional, sino para moler mineral de ferrería e incluso para moler vegetales (ramas, troncos) para la elaboración de pasta de papel en las primeras papeleras de la zona.



Zona de Larrats, al fondo el monte Urdaburu.



Cantera de Errotarrieta (Artikutza).



Detalle de marca sobre roca arenisca (Larrats).



Muela y media muela en Artikutza.



Muela de granito en Ugarte (Asteasu).

Una muela de granito de gran tamaño (165 cm. de diámetro, y espesor de 41 cm.) se puede ver como adorno junto al caserío Ugarte en Asteasu, procedente de una papelera de Hernani, según nos informaron a finales del año 2012. Lo más probable es que esta muela se usara para la trituration de fibra de madera mediante muela abrasiva, antes de su mezcla en el digestor para transformarla en pulpa (con agua y productos químicos), según los antiguos métodos de fabricación del siglo XIX, hasta que fue sustituida por algún tipo de triturador mecánico más moderno.

Una de las canteras de granito de Artikutza está indicada con un panel junto al trazado del antiguo ferrocarril minero que iba hacia el valle de Oiartzun; la otra, está situada un kilómetro al SW., en una zona de difícil acceso denominada Errotarrieta (topónimo ya citado a finales del s. XVIII como sel pastoril o "sarobe"). La toponimia ha sido clave para el hallazgo de esta segunda cantera en Artikutza.

La cuarta cantera hallada está situada en la cabecera del Urumea, en término de Goizueta; su descubrimiento es bastante reciente, de mediados de julio de 2015. Su hallazgo es un buen ejemplo de investigación vía transmisión oral, mediante informantes que muestran sensibilidad por recuperar parte de "algo que ya estaba olvidado", informantes que muestran sensibilidad hacia una parte de nuestra historia no tan lejana. Denominada como cantera de Organbide, está situada en la zona cercana

del collado de Enekoelorrjeta, hacia el monte Loizate. En su hallazgo y catalogación ha colaborado el hernaniarra Iñaki Sanz-Azkue, compañero del departamento de Herpetología de Aranzadi Zientzia Elkartea, que se interesó por lo que yo estaba investigando en la cuenca del Urumea. Mediante contactos llegó a identificar al informante conocedor de esa "desconocida" cantera, el médico José Javier Echeverría; este amablemente nos condujo a la zona, zona sobre la que había obtenido referencias de un pastor ya fallecido. En este caso ha sido la transmisión oral la fuente de investigación que ha permitido recuperar el lugar donde se desarrolló el oficio molero en la zona de la cabecera del Urumea.

Por otra parte, en la margen izquierda del Urumea se ha reconocido la ladera norteña del monte Oindi, las zonas de Argurutze y de Mugarriluze, donde la existencia de rocas arenisca y conglomerado triásico, aportan entidad suficiente como para poder certificar la posible fabricación de muelas en la zona: la localización de zonas aplanadas de apariencia antrópica, antiguos caminos carretiles y pequeñas bordas, contribuyen a ello. Pero, de momento, los indicios no son concluyentes; la investigación sigue abierta a la espera de obtener algún dato documental que lo pueda corroborar.

También se dispone de algunos indicios con datos de informantes sobre una posible cantera en la cabecera del valle, en terrenos de Leitza, zona aún no explorada.

En definitiva, la investigación en la cuenca del río Urumea sigue aún abierta; es por ello por lo que todavía nos puede deparar sorpresas.

Agradecimientos:

A Iñaki Sanz-Azkue, Inaxio Sanz y Jesús Azkue (Hernani), a la familia Pikabea (Epelerrota, Hernani), a la familia de Errotaberriko Errota (Urnieta), a José Javier Echeverría (Goizueta), a la familia Bake-ro (Goizueta), a Joxan Ruiz (Arano) y a Ángel Calvo (Donostia).



Cantera de Organbide.



Muela de 121 cm. de diámetro en Organbide.

PROYECTO EUROPEO

Desde el año 2010, desde el Departamento de Etnografía de Aranzadi Zientzia Elkarte, se está colaborando con un proyecto altruista a nivel europeo, coordinado desde la Universidad de Grenoble (Francia), para poner en difusión el antiguo oficio de molero y las canteras de piedras de molino, material necesario que abasteció durante muchos siglos a esos ingenios molineros. Se trata de recopilar los datos del origen en donde se obtenían las piedras que se tallaban en forma de muelas de molino, y que se usaron en esos ingenios, tanto para obtener diferentes tipos de harinas para alimentación humana y animal, como para moler diversos materiales, tales como yeso, mineral de hierro, vegetales, pólvora, vidrio o incluso para obtener el preciado aceite en las almazaras o trujales.

Hasta hoy se han fichado cerca de 740 canteras moleras por todo el continente europeo. En un ámbito cercano, son alrededor de 70 las canteras que se han investigado. Se ha estudiado la geología de diversas zonas de Bizkaia, Gipuzkoa, Araba y Nafarroa, para poder así conocer si en ellas se hubieran podido extraer y trabajar grandes rocas. Han sido encontradas canteras en lugares tan diferentes como en las brechas calizas del Cretácico Superior del valle de la Sakana (Uharte Arakil), en el granito porfídico de la zona de Aiako Harria, en los conglomerados del Cretácico Inferior de Usurbil, en las calizas lacustres del Eoceno en el centro de Araba y Trebiño, en areniscas del Cretácico Inferior en el monte Gorbeia, en areniscas del Devónico Inferior en Aurizberri-Espinal... Son muy buena piedra para moler las conocidas rocas de areniscas rojizas del Triásico Inferior y Medio distribuidas por la montaña navarra, desde el valle de Malerreka hasta Abaurregaina, incluyendo extensas zonas de Baztan, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar y Aezkoa. La zona de la costa de Gipuzkoa y Bizkaia también está siendo explorada, desde Gaztelugatxe (Bermeo) hasta Jaizkibel (Hondarribia).

Se está aprovechando la investigación para también catalogar las pequeñas piedras de afilar o "dezterak", además de piedras que se usaron para otros fines, como, por ejemplo, para la cobertura de los pozos artesianos (ello permitirá en un futuro abrir nuevas vías de investigación etnográfica). Un objetivo secundario de la investigación es llevar a cabo análisis comparativos, y llegado el caso poder determinar el origen de una muela utilizada o abandonada en determinado molino, es decir, identificar si esas muelas son originarias de una u otra cantera (eso no es sencillo ya que las rocas son de gran similitud entre unas zonas y otras, y, además, en los últimos 150 años, al haber revolucionado el transporte el sistema de abastecimiento, este ha dejado de ser local).

Cada zona explorada ofrece nuevos y relevantes datos, datos que llegan a revelar informaciones tales como la existencia de caminos antiguos, del uso de elementos de transporte tan arcaicos como las "leras" o narrias ("narras"), del empleo de losas de dólmenes para fabricar muelas (algunas han quedado rotas, otras a medio fabricar), de la presencia de determinada casa-torre o monasterio que controlaba su producción... Se puede afirmar que en toda la geografía de Euskal Herria existieron canteras de piedras de molino, pero no en todos los lugares se extrajeron piedras de buena calidad como para que perdurasen en un molino sin romperse.

La metodología de trabajo, como antes hemos concluido, es la siguiente. Tras el trabajo de campo, tras conocimiento in situ de la zona, de la cantera, se realiza una extensa ficha en la que se incluyen los datos obtenidos de las diversas fuentes documentales, fotografías de los restos existentes en el lugar y una recopilación de las entrevistas orales efectuadas a informantes. La información contenida en esas fichas puede ser consultada en la web del Atlas Meulieres, que aporta, además de un resumen de forma estructurada, sus coordenadas geográficas:

<http://meuliere.ish-lyon.cnrs.fr/presentation.html>

Una vez finalizado el estudio, se estima que serán algo más de un centenar las canteras que lleguen a catalogarse en el ámbito de Euskal Herria que se está investigando, localizaciones que serán conocidas, y podrán ser visitadas. Y lo más importante, se evitará así, la pérdida de tan rico patrimonio, hasta ahora, por su desconocimiento, tan poco valorado. De toda la información generada, por otra parte, se deja una copia en la Sociedad de Ciencias Aranzadi, y ya se han editado algunos artículos en diversas publicaciones y se han ofrecido conferencias para mostrar el estado de la cuestión.

COMO COLABORAR

Las rocas talladas y las marcas de las improntas o alvéolos han perdurado in situ durante largo tiempo, consecuencia del respeto de nuestros antepasados hacia los lugares en donde llevaban a cabo el duro trabajo realizado en la montaña. Sin embargo, más recientemente, en ocasiones, algunas muelas han sido transportadas a fincas particulares, hecho del todo improcedente si no se toman las debidas precauciones ya que borra los vestigios de la propia cantera, su localización... (ha de tenerse en cuenta que estamos hablando de elementos todavía no protegidos por normativa específica alguna) y dificulta su investigación. Hay canteras en las que escasos vestigios perduran, acaso alguna muela como testigo; es por ello por lo que de conocer su existencia deberíamos informarlo a la Sociedad de Ciencias Aranzadi, para que investigadores puedan abrir una ficha, explorar la zona y proceder a su catalogación.

MARCELO USABIAGA, BIZITZA OSOA BORROKAN

Urko Apaolaza Avila

2015eko uztailaren 23an hil zen Marcelo Usabiaga Hernanin, 98 urterekin. Frankismoari aurre egiteagatik bere haragitan jasan zituen tortura eta kartzela. Esklabo ere aritu zen langile-batailoietan. Baina ideiei tinko eutsi zien, berdin momentu zailenetan nola bizitzaren azken uneetan.



Marcelo Usabiaga Donostiako Tolosako hiribidean. Gerra ostean esklabo lanetan aritu zen errepide hori egiten, "harriz betetako bagoiak bultzatzen" (argazkia: Aitor Azurki / ARGIA).

Oroimen historikoaz hitz egitean badaude zenbait pertsona euren jardunagatik erreferentzia ezinbesteko izan direnak. Horieta bat zen Marcelo Usabiaga Jauregi (Ordizia, 1916-Hernani, 2015). Bere lekukotzarekin, gerran eta frankismoan bizitako esperientziak azaldu zituen han eta hemen, gertatutakoak salatu eta bidean geratutakoak ahanzturan erori ez zitezen.

Usabiaga Ordizian jaio zen, baina haurra zela Irunera joan zen bizitzera, trenbidea zela-eta langile giroa bor-bor zegoen mugako herrira. Han, oso gazte hasi zen politikan militatzen: II. Errepublika iritsi zenean Alderdi Komunistan sartu zen, eta 1934ko iraultzako testigu ere izan zen. Iraultza horren porrotaren ondorioz mugaz bestaldera ihesean zihoazenak laguntzen aritu zen, atxilotu zuten arte. Poliziaren eskutik jipoia jasotzea zer zen ikasi zuen Usabiagak, eta Ondarretako harlauzen hotza ere sumatu zuen lehen aldiz, ez zen azkena izango.

Ataka horretatik justu-justu libratu zen gazte komunista, seguruenik indar armatuek asturiarrak zituztelako gehiago jo-puntuak: "Nik behin eta berriro Irungoa nintzela eta horretaz deusik ez nekiela esaten nien. Horregatik libratu nintzen", aitortu zuen *Argia* aldizkariarekin izandako elkarrizketan.

GERRA, ESKLABO BATAILOIAK ETA MAKIEN GERRILLA

1936an faxistek gobernu demokratikoaren kontra jo eta gerra lehertu zenean, Irungo borrokaldia funtsezkoa izan zen. Militar altxatuei hainbat astez eutsi zieten bertan bildutako ezkertiarrek, Donostia eta Gipuzkoa osoa berehalakoan haien eskuetan gera ez zitezen. Borrokaldi horretan buru-belarri aritu zen Marcelo Usabiaga, lagun eta senideak ondoan zituela. Baina Irun sutan kiskali zen, eta Aiako Harrietan Bernardo anaia fusilatu zioten.

42 urte geroago, jadanik Franco hilda zegoela, bera izan zen Pikoketara joaten lehenengotakoa, eta anaiaren eta beste askoren hezurak bere eskuz atera zituen lurpetik: "Ez genuen hezur bakoitza norena zen jakin nahi izan. Berreskuratu nahi genituen, duintasunez lurperatu. Besterik ez". Marceloren seme eta Bernardo fusilatuaren iloba den Miguel Usabiaga hernaniarrak "Flores de la República. Los olvidados de Pikoketa" liburua argitaratu du berrikitan, Pikoketa baserrian gertaturiko hilketak kontatuz.

Marcelo Usabiaga hainbat frontetan aritu zen gerrak iraun bitartean Rosa Luxenburgo batailoi komunistarekin. Euskal historiografian kasik mito bihurtu diren mendietan ibili zen, Kalamuan eta Intxortan, adibidez. Valentzian harrapatu zuten, errepublikar gobernua eta beste milaka lagun erbesterako bidea hartzera zihoazenean. Halaxe itzuli zen jadanik ezaguna zuen Ondarretako kartzelara.

1937ko maiatzean, errepublikaren alde borrokatu ziren baina ardura politiko larriak ez zituzten presoak esklabo gisa erabiltzeko dekretua atera zuen Francok, zinismo

osoz "lana egiteko eskubidea" zutela esanez. Baita erruzlan egin ere. Usabiaga Ondarretatik gertu zegoen Anti-guako Tolosa hiribidea egiten aritu zen "harriz betetako bagoiak bultzatzen". Ez denbora askoan ordea, handik Zestoako Arroara eraman baitzuten, eta bere ikasketengatik -merkataritza irakasle zen- administrari lanetan aritu zen. Baina aukera izan orduko hanka egin zuen beste zenbait lagunekin batera.

Mugaz bestaldera igarota, makian sartu zen eta 1944an lehen euskal gerrillari taldearekin Hego Euskal Herrira igaro zen Pedro Barroso komandanteak gidaturiko misio batean. Hara nola kontatu zion Mikel Rodriguez historialariari "Maquis. La guerrilla vasca" liburuan: "Frantzian ikusi nuen azkena Ordoki izan zen, ni agurtzera joan zen txalupa gainera igotzera nindoanean, eta esan zidan: 'Uste dut hau gaizki aterako den abentura bat dela' ". Operazioa porrot izugarria izan zen, taldeko denak atxilotu zituzten, batzuk Donostian eta besteak Bilbon, eta Barroso bera fusilatu egin zuten azkenean. Usabiaga justu-justu libratu zen berriz ere heriotzatik: "Ziega barruan pelotoiaren aurrean hartu beharreko jarrera entsaiatzen aritu nintzen".



1944an makien gerrilla taldearekin poliziak atxilotu zenean argazki hau atzeman zioten Marcelo Usabiagari, bi-bote eta guzti, dokumentazio faltsua egiteko. Ferrolgo artxibo militarrean egon da orain arte.

MANZANASEN TORTURAK, ETA 21 URTEKO KARTZELA

Atxilotuak Meliton Manzanasek inspektore beldurgarriaren eskuetan erori ziren. Usabiagak gerra aurretik ere ezagutzen zuen, herrikidea baitzen: "Gela batean sartu ninduen Manzanasek: 'Aurrera joan, kabroi alena!'; eta mehatxuka: 'Beno, zuk denak ordaindu beharko dituzu!'. Gorriak iku-



Burgosko presondegian, 1955eko Merced festan. Usabiaga lehen lerroan, ezkerretik hasita.

si nituen. Nire bizitzan pasa dudak beldur handiena gau hartan izan zen...". Torturatua izan ondoren, 20 urteko espetxe zigorra etorri zen, 21 egin zituen kartzelan, propina eta guzti.

Urte horietan guztietan hamaika kartzela ezagutu zituen. Albaceteko Chinchilla kartzela berezian izan zen, gero Carabanchelen, Alcazar de San Juanen, Cordoban eta Puerto de Santa Marian, eta azkenik Burgoseko espetxera eraman zuten. Han igaro zituen gatibu-aldiko azkeneko 14 urteak, beste 1.900 preso politikorekin batera. Kartzela barruan ezkutuko mezuak egiten "espezializatu" zen, luma zorrotz batekin letra nimiñoak inskribatzen zituen objektuetan.

HERNANIKO ORBEGOZORA LANERA

60ko hamarkadan aske geratu zenean, espetxean zela kanpotik hainbeste lagundu zion Bittori Barcena neska lagunarekin ezkondu, eta Hernanira etorri ziren bizitzera, Orbegozo altzairu fabrika handian lana aurkitu baitzuen preso ohiak. Marcelo Usabiagak gure herrian igaro du bere bizitzaren erdia.

Orbegozon pertsonal arloko arduradun izan zen, baina ez zuen egun batetik bestera lortu bere egunerokoa normalizatzea. Erregimen frankistaren errepresioa eta umiliatzea jasan behar izan zituen urte luzez. Hala, igandero Gobernu Zibilera joatea derrigortzen zuten, eta han edukitzen zuten goiz osoa polizia armatuen irain eta mesprezu artean.

Azkeneko urteetan militantzia politikoa ez zuen bazterrean utzi, Ezker Anitza/IU eta EPK-ko kidea zen, eta oroi-men historikoa berreskuratzeko ekitaldietan parte hartu izan zuen behin eta berriz. Esaterako, Ondarretako kartzelan zegoen tokian Donostiako Udalak jarritako plaka inauguratzeko unean han zen, eta 2015eko apirilaren 14an Eibarren berak jaso zuen bandera errepublikarra. Gerran eta ondoren gertatutakoa ezagutaraztea izan zuen beti

helburu Usabiagak, baina egia ofizialak frankismoaren biktimak gisa aitortu gabe hil zen. Bere erraustak Pikoketako zuhaitz kimu baten oinean lurperatu zituzten 2015eko urriaren 18an.

MANZANASEN SALATARIAK MEHATXU EGIN ZIONEKOA

Usabiagak Hernanin izandako ETaren atentatu bati buruzko informazio argigarria eman zion duela gutxi Aitor Azurki kazetariari *Argian*. Militante komunistak, Donostiako polizia-etxera sinatzera joaten zenean, ezagun zahar bat izaten zuen beti bere ondoan iseka: Meliton Manzanasek. Usabiaga jabetuta zegoen Manzanasek bere bizitzaz, eta Orbegozoko beste langile askorenaz datu mordoa zuela: "Aste osoan lantegian egiten nituen gauza asko zehatz-mehatz esaten zizkidan". Nolanahi ere, azkenean bakean utzi zuen torturatzaile ankerrak.

Handik denbora batera, Orbegozoko atezain zebilen Demetrio Lesmes langilearekin eztabaida tira-biratsua izan zuen Usabiagak, pertsonaleko tramite arrunt baten ondorioz. Orduan Lesmesek mehatxu egin zion: "Oso ondo ezagutzen zaitut, eta zure bizitza osoa dakit! Zu preso egon zara urte askoan. Egutero hitz egiten dut Manzanasekin eta egiten duzun gauza guztiez informatzen dut!". Harri eta zur geratu zen. Handik ia hamar urtera ETak Lesmes hil zuen tiroz Hernanin, lantegitik etxera zihoala, salatari izatea egotzita.

Buruan iltzatuta geratu zitzaizkion arren, Marcelo Usabiagak isilpean eduki zituen hamarkada askoan Lesmesek esandako hitzak; hasieran beldur zelako frankistak berriz ere berarekin tematuko ote ziren, ondoren ETak egindakoagatik "inork lotzerik ez nukeelako nahi".



Urteak daramazkizu bere izena entzuten.
Zenbatetan pasako zinen bere paretik...
edo bazkaldu, afalduko zenuen bertan... auskalo!
Sagardo txapelketetan,
kaldereroetako entsaioetan ere
egon zara behin edo behin.
Agian bazkide ere bazara.

Elur-Txori Elkartek urteak daramatza
hernaniarron artean.
Elur-Txori Elkartea oso ezaguna da.
Elur-Txori gora, Elur-Txori behera...
zenbatetan esan ote duzu “Elur-Txori”
izena zure bizitzan zehar.
Eta orain, bat batean, galdera ergel bat
etorri zaizu burura: Zein da “Elur-Txori”
izenaren esanahia? Zein da “elur-txoria”?

Elur-Txoriko *elur-txoiya*ren arrastoei segika

Iñaki Sanz-Azkue

KONTU XELEBRE HONEN HASIERA: BASERRITARRA ETA BIOLOGOA

Jauregi bailarako baserri batean, ukuilua zen tokian, orain barazkiz eta kaxaz beteriko lekuan bi aulki zahar parez pare jarrita. Erdian kaxa baten gainean, Ipad-a. Aulki batean eserita, 90 urte inguruko baserritarra. Parean, 30 urtetik gorako biologo kaletarra. Ipad-eko pantaila baserritarrari begira dago, animalia ezberdinen argazkiak pasa eta pasa ari dira. Baserritarrak ezagutzen dituen animalien izenak esaten dizkio biologo kaletarrari. Honek, guztiak bere koadernoan txukun-txukun apuntatzen ditu.

Txorien izenak esaten hasi da baserritarra. Izen guztiak, noski, bere gurasoek erakutsitakoak dira. Ez du sekula animalien libururik izan esku artean: "Hau karnaba, hau txirriskalaya, hau txurruburruba eta hau... elur-txoiya" esan du. Biologo kaletarrak moztu egin du elkarriketa: "Barkatu, nola deitu diozu azken horri?". Baserritarrak, ozen eta garbi: "elur-txoiya".

Ukuiluko elkarriketa aberatsa izan da. 80 bat txoriren izenak jaso dizkio baserritarrari biologoak. Baina horrek etxera bidean hitz bakarra du buruan bueltaka: "elur-txoiya". Aurreneko aldia zen *Prunella modularis* txoriaren Hernaniko izena entzuten zuena biologoak, eta baserritarraren begiradak eta tonuak ez dio dudatzeko aukerarik ere eman: baserritarrarentzat *Prunella modularis* "elur-txoiya" da.



Prunella modularis. Baserritarrarentzat: "elur-txoiya".

HASIERAREN SEGIDA: BIOLOGOA ETA ELUR-TXORI ELKARTEKOAK

Biologoak:

"Aizue, barkatu, begira... gauza kurioso batekin natorkizue. 'Burbunak eta etsayak' izeneko proiektuaren barruan Hernaniko baserri ezberdinetan elkarriketak egiten ari gara animaliek eta landareek bertako euskaran dituzten izenak biltzeko.

Txori izen asko bildu ditugu dagoeneko: pirripillua, txirriskala, mikelete-txoiya, txantxangorriya, pinpiña... Baina aurreko astean 'elur-txori' izena atera zitzaigun, ordura arte jaso gabe genuen izena. Zuek ba al dakizue zuen Elkartearen izena, "Elur-Txori", zein txoriren izena den?"

Elur-Txori Elkartekoak:

"Ba egia esan, ez dugu ideiarik ere... Elkarteko armarrarian azaltzen da txori bat, baina ez dakigu zein txori den... Zuei esan dizuen hori izango al da?"

Biologoak:

- "Ez dakigu, horregatik galdetzen genizuen. Interesatuko litzaiguke zein txori den jakitea. Agian bera da, baina agian, bi txori ezberdini ematen zaio 'elur-txori' izena Hernanin".

Elur-Txori Elkartekoak:

- "Guri ere gustatuko litzaiguke ba gure Elkartearen izena nondik datorren jakitea".

ELUR-TXORIKO ARMARRIA, EDO ARMARRIAK ESAN BEHARKO?

Erraza zirudien hasiera batean. Elur-Txori Elkarteko armarrria begiratu, armarrriko txoria zein espeziekoa den ikusi, eta listo. Nahikoa izango litzateke biologo baten presentzia baserrian jasotako elur-txoiya eta Elur-Txoriko armarrrikoa espezie bera diren ala ez jakiteko.

Elur-Txori Elkarteko sarreran bi ate daude. Bertan, bi atee-tan omen dago armarrria. Parrilla gainean ere ba omen dago beste bat.

Elkartera joan, eta bai. Barruko atearen kristaletan bi armarrri berdin topatu ditu biologoak. Kolore gabeko armarrriak dira, ordea. Horko txoria ezberdintzea zaila da. Barrura sartu eta Elkartekoek esan bezala, parrillaren gainean ere badago armarrria. Handia eta koloreztatua. Hori da behar zuena.

Pixka bat erreparatuta, ordea, badago zerbait arreta pizten diona: Zer demontre? Atean dauden armarrrietako eta parrillako armarrriko txorien forma ezberdina da, eta txoriaren azpian dagoen paisaia ere ezberdina da!

Biologoak:

- "Aizue, bi armarrri hauek ezberdinak dira. Ba al zenekiten?"

Elur-Txori Elkartekoak:

- "Ezberdinak? Ba... ez. Ez ginen orain arte konturatu..."

ATEETAKO ARMARRIAK & PARRILLA GAINEKO ARMARRIA

Ateetako armarrria ez dirudi eskuz egina dagoenik, eta txoriaren azpian /H/ handi bat, Hernani herria gogoratuz ziurrenik, barruan mendi gailur batzuk dituen marraz-



Ezkerrean, Elur-Txori Elkarteko sarrerako ateetako armarrria. Eskuinean, parrilla gainekoa.

tuta. Nahikoa gailur altuak gainera, eta itxuraz, mendi puntak elurtuak daude. Ez dute Hernani inguruko mendien antzik.

Parrilla gaineko armarrria eskuz egina dago, eta txoriaren azpian, hemen ere, /H/ hizkia. Honen barruan, aldiz, gailur borobildu batzuk daude, eta herri eta eliza baten perfla antzeman daitezke. Ondo begiratuta, argi eta garbi ikusten da herria Hernani dela: kanpandorre, eta atzeko mendia, Santa Barbara, harrobirik gabe oraindik, eta goialdean ermita.

Azaleratu da aurreneko misterioa: Elur-Txori Elkartek bi armarrri ezberdin ditu. Elkartekoak, zur eta lur!

Parrilla gainekoak armarrri zaharrena izateko itxura du. Eskuz egina, Hernani eta Santa Barbara agertzen direlarik. Santa Barbarako harrobia ez dago oraindik. Elkartea sortu zenean ere ez zegoen harrobirik.

Hasi eta segituan iritsi da aurreneko sorpresa. Bi armarrenak harrituta utzi ditu denak. Baina biologoak berearekin jarraituko du: txoriaren bila zetorren. Kamara atera eta parrilla gaineko txoriari atera dio argazkia.

ARMARRIKO ELUR-TXORIA, JAUREGIKO BASERRITARREN TXORI BERA AL DA?

Armarrria ikusi bezain laster konturatu dira, Elur-Txoriko armarriko txoria eta baserritarraren txoria ez dira berdinak.

Baserritarraren elur-txoiya, Jauregiko baserritarraren txoria, esan bezala, *Prunella modularis* izenekoa da. Txolarraren antzeko koloreak ditu eta lepo eta buru aldea grisaxka.

Armarriko elur-txoria zuria eta beltza da. Armarrikoak ez du *Prunella modularis*en antza izpirik ere.

Armarriko elur-txoriaren koloreak ez dira oso arruntak. Oso txori gutxi dituzte kolore horiek. Pentsatzen jarrita... Armarrikoak txori nahiko arraro baten antza handia du! *Plectrophenax nivalis* bat ematen du!

Plectrophenax nivalis Piriniotako txori bat da, elurretan ibiltzen dena, eta oso gutxitan jaisten dena Gipuzkoako kostara. Litekeena da elurte garaian, garai batean, hegazti hau noizbehinka mendietatik jaitea, eta ehiztariek hau ezagutzea, eta izena jarri izana. Ez litzateke astakeria izango "elur-txoria" izena jartzea espezie horri. Logika handia du.

Baina posible al da Elkartea sortu zutenek txori hau ezagutzea?



Plectrophenax nivalis txoriak ez du inongo antzik baserritarraren *Prunella modularis*ekin.

Biologoak froga bat egin du: argazkia atera eta bost orni tologori (hegaztietan espezializatuak) bidali die armarri zaharra, zuri eta beltz koloreko txoriarekin. Ez dute elkar ezagutzen. Segituan jaso du bakoitzaren erantzuna: denek *Plectrophenax nivalis*-en antza duela diote. Ez dute dudarik.

ARMARRIA MARGOTU ZUENA ETA ORNITOLOGOAK

Itxuraz misterioa argitua zegoen. Elur-Txoriko armarriko txoria *Plectrophenax nivalis* zen, elurretan ibiltzen den txoria. Guztien sorpresarako gainera, oso txori arraro baten Hernaniko izena aurkitu izanaren ustea zuten. Herri askotan gertatzen zen gauza baten aurrean ziren itxuraz: bi txori espeziek izen bera zuten Hernanin.

Baina guztia argiturik zegoela uste zutenean... armarría margotu zuenarekin egin zuten topo.

Armarria margotu zuen pintorea:

- "Parrilla gaineko armarríak hasiera batean ez zuen kolorerik, eskaiolaz eginga zegoen, dena zuria zen. Nik Elur-Txoriko bandera zaharra, San Joan jai batzuetan lapurtu zutena, hartu nuen erreferentziatzat. Hura txuri-beltzean zegoen, eta nik txoriaren koloreak zein ziren ez nekienez, bertakoak errespetatu nituen: zuriak eta beltzak. Gainera, elurretako txoria zenez, zuri asko edukiko zuela pentsatu nuen. Edo ez?"

Ederra ziria sartu ziena margolariak. Kolorerik ez zekienez, txuri-beltzean mantendu zuen txoria, eta nahi gabe, *Plectrophenax nivalis*-en itxura eman zion... ornitologo guztiak engainatuz. Oraingoan zuria geratu zena, biologoaren aurpegia izan zen, momentu batez.

Baina orduan? Nola jakin zein txori den armarríkoa, pista-rik ez badago jada?

ELKARTEKO SORTZAILEAK, AKTA ZAHARRAK ETA ELKARTEKO BANDERA

Elkarteko armarríek ez zuten balio, beraz. Elkarteko bandera zaharrena, aurreneko armarría zuena, lapurtu egin zuten San Joan batzuetan, eta Elkarteko sortzaileak, Elkarteari izena jarri ziotenak, urte batzuk lehenago joan ziren beste mundu batera. Guztien zoritxarrerako, akta zahar gehienak ere desagertuak zeuden elkartetik... ez zegoen modurik. Horrela utzi beharko zuten sasi-ikerketak hura...

Ez zegoen modurik armarríko elur-txoria zein txori zen jakiteko.


Baina gutxien espero zutenean... elkartean kafea hartzen ari ziren batean:

Elkarteko bazkide batek:

- Armarríko elur-txoria zein txori den? Nik ikusi dut non-bait zer bait txori horri buruz... Elkarteko 50. urteurreneko liburuan begiratu al duzue?"

Eta hor, bazkideak esan bezala, aurreneko orrialdean, kalitate eskasean, Elkartea sortu zeneko garaian, 1957an, Gobernadore Zibilarí bidalitako eskutitzaren argazkia zegoen. Zera esaten zuen:

"SOCIEDAD RECREATIVA ELUR-TXORI (pinzón-pájaro de las nieves)".



Elkarteko 50. urteurreneko aldizkarian dago gobernadore zibilarí bidalitako akta.

Gainera, hurrengo orrian, bandera bedeinkatu zuteneko argazkia zegoen, eta txoriaren txuri-beltzeko argazki eskas bat.

Itxuraz "elur-txoria", gazteleraz "pinzón" izenekoa zen. Dena galdua zegoela uste zutenean, ikerketak bide berri bat hartu zuen.

"PINZÓN" DELAKO TXORIA...

Aurreneko aktako "elur-txori = pinzón" delakoak ordea, ia-ia, argitu baino, gauzak gehiago nahastu zituen. Izan ere, "pinzón" izenarekin bi espezie ezagutzen dira: pinzón vulgar (*Fringilla coelebs*) eta pinzón real (*Fringilla montifringilla*).

"Pinzón real". Bai arrak, bai emeak kolore nabarmenak dituzte. Hernanin, baserrietan "pinzón real" delakoaren izenak baduela izen bat jakina da: "txortintxa riala" edo "pintzote riala" izena ematen diote ezagutzen dutenek. Gainera, Elkarteko banderan agertzen zen txoriak zuriu-neak zituen paparrean, "pinzón real" delakoak, ordea, gorrizka du beti. Argi dago, beraz, armarríko txoria, ez zen "pinzón real" delakoa.

"Pinzón vulgar". Arrak paparra gorria du, baina emeak zurixka. Beraz, izatekotan armarríkoa emea zen. Gainera, hiztegi askotan "pinzón" izenaren itzulpena "elur-txori" zela jartzen zuen. Txori hau, ordea, oso ezaguna da Hernanin. Biologoak egindako 20 bat elkarriketetan, hau da, ia elkarriketa guztietan, "txortintxa" edo "txortintxa" moduan ezagutzen zuten txoria. Gutxi batzuk "pintzotia" ere deitzen diotela ere bazuen jaso. Gainera, nahiz



"Pinzón real".



"Pinzón vulgar".

eta hiztegi askok "pinzón" "elur-txoria" dela jarri, Euskaltzaindiak eginiko Euskararen Herri Hizkeren Atlasa lanaren arabera "pinzón"en izenak Hernanin, "txortintxa" behar zuen, eta "elur-txoria" soilik Nafarroako herri batean (Zugarramurdin) eta iparraldean (Zuberoan) deitzen ziztaion.

Hau dela eta, "pinzón real" delakoa ez da Elur-Txoriko armarriko txoria, eta "pinzón vulgar" izatekotan, emea beharko luke (arra baino askoz ezezagunagoa dena). Eta datu guztien arabera, Elkartea sortu zutenek libururen batetik jasoa behar du, Hernanin, "pinzón", "txortintxa" edo "pintzotia" moduan ezagutzen baita.

Elur-Txoriko armariaren misterioa argitu gabe zegoen bitartean, biologoa baserrietan egiten ari zen elkarriketa kopurua ere handitzen ari zen. Honela, "elur-txori" izena hiru baserri gehiagotan ere aterata zen: Jauregikoaz gain, Osiñagan, Ereñotzun eta Martindegin ere eman zuten "elur-txori" izena. Guztiek hegazti berari buruz hitz egiten zuten: aurretik aipaturiko *Prunella modularis* buruz, hain zuzen.

Beraz, gauza bat argi zegoen: baserrietan bildutako "elur-txoiya" eta Elkartekoa ez ziren txori bera.

Baina orduan? Zein zen armarriko txoria?.

EPELEKO TESTIGANTZA... ELURRAREKIN ETORTZEN ZEN TXORIA

Eta honela, gutxien espero zutenean, Epeleko lagun batekin hitz egiten ari zirela, gaia aterata eta hark: "Elur-txoiya?... Bai, ezautzen diat nik elur-txoiya" esan zien.

*Prunella modularis*en argazkia erakutsi eta ezetz, ezagutzen zuela, eta beste izen bat zuela, baina hari ez ziotela etxean "elur-txoiya" deitzen. Ondoren "pinzón" delakoak erakutsi eta "txortintxa"k zirela haiek...

Biologoa:

- "Baina orduan, zein da elur-txoiya?"

Epeleko testigua:

- "Elur-txoiya" hego aldia txuriya dakan txoriya dek. Azpialdia re nahiko txuriya zakak, eta elurte garaitan eta etortze hun. Oso bakana hun. Leku irikitan gelditze hun. Baso inguruan ez. Txikitan ikusitako txoiya dek. Ordutik ez dit ikusi eta bizilaun batzuketan ehizian ibiltzen niñun, eta haik eakutsitako izena dek".

Biologoa:

- "Begiratuko dugu ba, ea zein den esaten duzun txoria".

Testiguak aipatutako ehiztariak hilda zeuden dagoeneko, beraz, liburuetan begiratzen hasi, eta han zegoen: *Montifringilla nivalis*. Euskara batuan: elur-txonta. Hau da, "pinzón de las nieves" izango zena.

Testiguak eginiko deskribapena ere bat zetorren espeziearekin, baita bibliografian aurkituriko aipuren batekin ere: Urretxu-Zumarragako Ostadar Mendi Taldeak sorturiko "Mendizalearen hiztegia" delakoan, "*Montifringilla nivalis* = Elur-txori" jartzen zuen.

Argazki bat hartu, eta testiguari erakutsi zion biologoak.

Epeleko testigua:

- "Bai, hau dek neretzako "elur-txoiya".



Montifringilla nivalis, Epeleko testiguaren "elur-txoiya".

ETA ORAIN, ZER EGIN ARMARRIAREKIN?

"Burbunak eta etsayak" proiektukook garbi ikusten dugu Elur-Txori Elkarteak Hernaniko Elkarte izatearen nortasuna izaten jarraitu nahi badu, armarriak berak nortasun hori islatu behar duela. Hau dela eta, lehenik eta behin, Santa Barbara azaltzen den armarrira erabiltzea gomendatzen dugu. Nahiz eta bi armarriak nahiko zaharrak izan, Elkarteko lehendabiziko banderan (lapurtu zuten hartan) azaltzen zena Santa Barbara zuena da, esaterako. Eta armarrian, zein txori jarri? Lau aukera daude:



1. Armarriko txoria dagoen bezala uztea eta egin zuenaren moduan errespetatzea: txuri-beltzean.



2. Pinzón delakoen artean arruntena dena aukeratzea, ka-su honetan emea, antzekotasuna errespetatzeagatik, nahiz eta jakin txori hau Hernanin ez dela elur-txori moduan izendatzen.



3. Armarrian Hernanin "elur-txoiya" moduan ezagutzen den *Prunella modularis* jartzea. Hau da Hernanin "elur-txori" moduan gehien ezagutzen dena. Honek, sortu zutenek jarritako "pinzón" delakoa ez errespetatzea ekarriko luke, baina, era berean, armarriak nortasuna irabaziko luke, Santa Barbarako paisaiarekin eta bertako txoriarekin.



4. Epeleko testiguak emandako *Montifringilla nivalis* espeziea jartzea. Armarrian dagoenaren antza gehiena duena da. Era berean, nahiz eta testigu bakarra izan, Hernanin erabiltzen den espezie baten izena da, eta "pinzón" bat ez den arren, askok horrela kontsideratu dutenez, ez litzateke astakeria izango jartzea.

Ukuilu zaharrear sorturiko galdera batek zenbat buelta eman ditzakeen erakusten duen artikulu honek ez du printze eta printzesen ipuin bukaerako emaitza polit eta garbirik. Maila guztietako ikerketetara ohituak daudenek ondo asko dakite emaitzak ez direla beti zuriak edo beltzak. Elur-txoriaren zuri-beltz koloreak, kolore askotako erantzuna eman digu oraingoan. Elkartekoak izango dira erabakia hartu behar dutenak. Beti ere, beste sorpresarik azaltzen ez bada.

Nork daki, agian zu izango zara, irakurle, artikulu hau irakurri ostean elkartera joan eta “nik badakit erantzuna” esango duena.

Baina bitartean, irakurle, zuk zein armarri aukeratuko zenuke?

Eta Elur-txori gora, Elur-txori behera... zenbatetan esango ote zuten Elkartekoek “Elur-txori” izena beraien bizitzan zehar. Eta orain, bat batean, “Elur-txoria” misterio handi baten partaidea dela konturatu dira.

Esker onak:

Sasi-ikerketa (edo okerketa?) honetan zehar gure galderei erantzuteko pazientzia izan duzuen guztioi. Elur-Txori Elkarteko Zuzendaritzari, bazkideei eta baserrietan etxean bezala hartu gaituzuenoi.

Oharra:

Elur-txoriaren ikerketa txiki hau, “Burbunak eta etsayak” izeneko proiektutik sorturiko adar txiki bat baino ez da. Irakurle, “Burbunak eta etsayak”i buruzko informazio gehiago nahi baduzu, irakurri urtekari honetan Eñaut Agirrek idatzitako artikulua.

"BURBUNAK ETA ETSAYAK" DOKUMENTALA

Hizkuntzari luparekin begiratzten zaionean...

Eñaut Agirre Goia (DOBERA Euskara Elkartea)



DOBERAk eta Aranzadi Zientzia Elkartek 400 hitz bildu dituzte Hernanin, animalia eta landareenak. Hor oinarrituta, azaroan kaleratu da "Burbunak eta Etsayak" dokumentala, 25 hernalarrei egindako elkarrizketak biltzen dituena.

Hizkuntzari luparekin begiratzten diogunean, txundituta geratzen gara. Hartu dezagun "arbola" hitza, eta jarri lupa: zenbat hitz biltzen ditu bere baitan? *Piñua*, *haitza* eta *pagua*... eta zenbat gehiago? *makala*, *urkiya*, *plantanua*, *norteko haitza*... konforme, ezagunak zaizkigu horiek ere; eta *astiarra*, *zumarra*, *haltza*, *lizarra*... herri izenak, ados; eta *elorri txuriya* eta *elorri beltza* eta *otsalizarra*, *zumalika txuriya*, *zumalika beltza*, *zumandarra*, *hostotxuriya*... Epa, epa! Nahikoa, nahikoa. Nahikoa, oraingoz.

Izen horiek etengabe dabiltza herritar batzuen ahotan. Berdin gertatzen zaigu belaze bateko belarrei begiratu-ta. Edo arrainei, edo ugaztunei, edo txoriei. Zenbat izen biltzen ote dira "txori" hitzaren atzean... Espezie horiek hor daude gaur egun, eta seguruenera egongo dira gero ere. Izenak, ordea, ez dakigu noiz arte egongo diren hor. Horregatik, bilketa lanean dira herri asko: Mutriku, Eibar, Zarautz, Hondarribia... eta azken bi urteetan, baita Hernani ere.



Julian Apaolaza eta Iñaki Sanz-Azkue belarrak ezagutzen.

“AMORRAYAK JUAN DA PUTZURA SARIAK...”

Ez da harritzekoa oraintxe aritzea bilketa lan horiek egiten Euskal Herriko hainbat herritan. “Amorrayak putzuan” bezala daude naturako hitzak bizirik gaur gaurkoz, eta hori aprobetxatzea da arrantzale onaren legea, Txabolategi¹ ederki zekien bezala: “*Amorrayak juan da putzura sariak, iñoiz bota oi ditu arrantzaliak, arren orduko lanak dira debaldiak...*”. Urte batzuk barru, alferrik izan litekeelako lan horietan hastea.

DOBERA Euskara Elkarrekin eta Aranzadi Zientzia Elkarrekin ia 60 elkarriketa egin dituzte Hernaniko etxe eta baserrietan. Naturako 400 espezieen izenak bildu dira, animalia eta landare, eta corpora osatua dago, dagoeneko. Hitzez gain, jakintza kulturala edo medizinala ere bada: *Arrobiyuaren* kondaira, *berbena-belarrarekin* egindako enplastoak, *gibel-belarrarekin* hepatitisaren kontrako erre-medioa, ukenduak, infekzioen kontrako belarrak...

LEGARRETATARRAK ETA ELOSEGITARRAK JAKIN BEHARREKOA

Kuriositatez betea dago natura. Legarretatarrak ur zaleak izan behar dute, nahita nahi ez. Legarra da, hain zuen, erriorearen ertzean egiten den harri-txintxarra edo harri pila. Karabelera joan, eta begiratu erriorearen erdian dagoen harri pila handiari: Urumeako hondartza deitzen diote, orain, batzuk; Urumeako legarra, beste batzuk. Erreparatu, eta behin baino gehiagotan ikusiko duzu bertan *lear-txoriya*, begi handi eta lepo-azpi zuri-zuriarekin.

Elosegitarrak ezagutzen baduzue, berriz, eta patxaran zaleak badira, ez larritu, beren sustraieetatik edaten ari dira

eta. *Elortz* hitzetik datorren abizen horrek, “*elorri lekua*” esan nahi du. Eta hain zuzen, patxarana edo basarana ematen duen arbolari *elorri beltza* esaten zaio Hernanin. *Elorri txuriya* ere izan liteke, noski, eta kasu horretan tximistaren kontra etxeetan jartzen den gurutzera eramango gaitu. *Elorriya* eta *lizarra* dira tximistak inoiz jotzen ez dituen bi arbolak. Hortik, San Joanetan etxe atarietan jartzen diren lizar adarrak ere, tximisten eta izpiritu gaiztoen kontrakoak.

Kuriositateak dira, eta hainbat eta hainbat bilatu litezke horrelakoak. Hizkuntzari lupa jartzea, edo hitzunei mikrofonoa jartzea besterik ez dago horiek deskubritzeko.

ZAZPI HERRITAN KANPAIAK JO ARTE LIBRATZEN EZ DENA

Behin entzunez gero, ez zaizu ahaztuko. Hori da kondaierek lortzen dutena. *Arrobiyua* baba-eltzean sartu zitzaizen baso-mutilek ez zuten kontatzerik izan, denak hil baitziren; baina *muskarrak* heldu zion zakurraren jabeak kontatu zuen, eta denak kirioak dantzan jarri zituen. *Muskarrak* hortzekin “presa” egiten omen du, eta ez omen da libratzen zazpi herritan kanpaiak jo arte. Sorginkeri itxura izan arren, badute egiatik zerbait, eta begiak erne ibiltzera behartuko ditu mendian dabilzanak.

Sorginkeriekin segika, hainbat urtez sorginkeri bezala jotzen ziren erremedioak ere hor daude, gure herrian erabiltzeari inoiz utzi ez diegunak. Odola garbitzeko *txangorriya* bezalakorik ez omen da; beheakoa lehertzeko *lahar-puntak*; txitxareentzako *errura*; giltzurdinentzako *giltzurdin-belarra*; edo depresioarentzako *Sanjuan-loria*, adibidez.

¹Jose Joakin Erroizenea Intxauspe “Txabolategi”, Hernanin ezagutzen den lehendabiziko bertsolaria (1769-1819).



Agerre baserrian iñistorrari buruzko elkarrizketa, Kepa Urreaga eta Maria Rita Mirandarekin.

DOKUMENTALA KALEAN DA, BI URTEKO LANA ETA GERO

Bi urteko lana izan da. Informazioaren zati txiki bat hartu, eta dokumentala kaleratu dute DOBERAK eta Aranzadik. Herritarren eskura dago *"Burbunak eta Etsayak"* izeneko DVDa. Hernaniarrak dira hiztunak, eta hernaniarrentzat da produktua. Hernanitik Hernanira. Belaunaldiz belaunaldi gaur arte iritsi den jakinduria, 60 minututan bildua.

Ereñotzuko San Antonio parrokian 200 lagun bildu ziren dokumental aurkezpenean, azaroaren 14an. Geroztik, Hernanin ere arrakasta politarekin aurkeztu zen Biteri kultur etxean, Euskararen Eguneko ekintzei itxiera eman zien ekitaldian. Eta horrez gain, Durangoko Azokako Iru-dieneara ere iritsi dira Hernaniko oihartzunak.

Lau hernaniar aritu dira lanean², batez ere, eta hainbat kideren kolaborazioa izan dute³. Ezin konta ahala ordu daude atzean, eta Ereñotzuko Auzo Udalaren eta Hernaniko Udalaren behar beharrezko babesa izan du proiektuak.

HIZKUNTZA AFEKTIBOA, HIZKUNTZA EFEKTIBOA

Hernaniarrentzat oso erakargarria da dokumental hau. Kontatzen diren gain, kontatzen den hizkuntzak berak badu xarma berezi bat hernaniarrentzat. Hasi Jauregiko muturretik eta Ereñotzu auzoraino, hizkuntza ia ez da al-

datzen, baina ez da berdin-berdina ere. Edozein hernaniarri gustukoa egingo zaion euskara, hiztunik abilenek hitz egindakoa, erritmoz betea, gertukoa, afektiboa, eta efektiboa.

Horrez gain, ordea, azpi-tituluak ere baditu dokumentalak. Lau modutara emango dira azpi-tituluak: Hernaniko euskararen, euskara batuan, gaztelaniaz eta ingelesez.

ATE BAT IREKITZEAK BESTE MILA ZABALTZEN DITU

Etorkizunera begira, lehenengo eta behin, DOBERAK eta Aranzadik liburu bat kaleratu nahi dute argitaratu gabe geratu den informazioarekin. Landare eta animalia espezieen fitxak bilduko ditu: Hernaniko izenak, euskara batukoak, izen zientifikoak, eta hernaniarrek horien gainean esanak.

Baina, ate bat irekitzeak beste mila zabaltzen ditu (adibidez, ikusi Iñaki Sanz-Azkueren erreportajea)⁴. Eta hala etorri dira Akolako Putzuxarko iturria berritzeko lanak⁵, eta horrekin lotutako gobara egiteari buruzko erreportajea, adibidez. Baina ez dira bakarrak. Garai bateko gizarte ohiturak ziren *Atsolorra* edo gaixoardietako bisitak; edo hain preziatua zen iñistorra biltzeko *harrapazka* famatua; *aaldiya* bezala ezagutzen zen bide-garbiketa eguna... ahazteko bidean zen hori bildu eta zabaltzeko proiektuak martxan dira, hernaniarrona izan denak, hernaniarrona izaten jarrai dezan.

² Elkarrizketak eta gidoia: Iñaki Sanz-Azkue eta Eñaut Agirre; irudiak eta post-produkzioa: Joxan Ruiz eta Jon Mari Beasain. ³ Irudiak hartzen Egoitz Alkorta hernaniarra eta Ander Izagirre elgoibartarra. Itzulpenak egin dituztenak, beren etxeko atek zabaltu dituztenak, eta abar luze bat. ⁴ Iñaki Sanz-Azkuek Elur-Txorien gainean egindako erreportajea sortu zen, *"Burbunak eta Etsayak"*-erako egin zituen elkarrizketetan, *elur-txoriya* izena behin eta berriz atera zelako. ⁵ Ikusi: <https://youtu.be/Wh83mwF62ag>

HIAZINTO FERNANDORENA SETIEN: ARANTZIBIAKO SEMEA, BAINA HERNANIKO BASERRIETAN SOLASKIDEAK TOPATUTAKO

Pello Joxe Aranburu Ugartemendia



Hiazinto (argazkia: “Jaxinto, ikastolen lemazain” liburuko azalean).

Hernani urtekarian Hiazinto Fernandorena Setieni buruz idazteko eskatu didate. Aurten lau-
rogeita lau urte luze, emankor eta alderdi anit-
zeko pertsonaia honen gainean idazten nondik
hasi izan da nire lehen kezka. Urnietako seme,
baina, Hernaniko udal teknikari lanetan aritu,
bertan urtetan bizi eta, 2003an, “Gure Baserriak.
Hernani” liburuaren egileetakoa ere bada, Hia-
zinto. Hala beharrez, hautaketa bat egitea bes-
terik ez zait gelditzen eta bere bizitzako ñabar-
dura batzuk dakartzat hona.

Urnietako Arantzibia baserrian, 1930ean, jaio zen.
Maximo lurramendi bere herriko gotzain berriak, kalonje
egitekotan, Salamancara hemezortzi urterekin eraman
zuen, eta han “Ciudad Rodrigo”n, latinitateko lehen urtea
egin zuen. Hala ere, 1949an, gotzain urnietarra bihotze-
koak emanda hil, eta umezurtz geratu zelako, Saturra-
ran eta Donostia beste bi seminarioetan apaiz ikasketak
amaitu zituen. Salamancan urte bat, Saturraran-en lau,
eta Donostian sei urtetan amaitu zituen hamabi urteko
apaiz ikasketak.

Saturrararen-en giro atsegina nabaritu zuen bezala, “Donostiako Filosofiako ikasturteei begira jarrita, gaur egun garbi aitortzen dut oso urte lehorrak izan zirela. Teologiako lau urteak berdin, aspergarriak” aitortzen du Hiazintok bere hitzetan.

Donostiako seminarioan, 1959an, apaiz egin zuten, eta urte berean “Boga-boga” kantu sorta argitaratu zuten Boni Urkizu, Iñaki Ugalde eta Hiazinto Fernandorenak inprentaz, lehenengo aldiz. Kantu liburu atsegin eta argitalpen ugari izandakoa.

Parrokiako apaiz lanak egitera Lazkaoko San Migel parrokiara bidali zuen gotzainak, jarraian. Eliz-Kriston, parrokiaren babesean kultura mugimendua, antzerkigintza eta abar bazegoen, Hiazintok hartu zuen lekukoa diote “Ekinez egina” liburuan. Bere hitzak dira ondorengoak ere: “Niri liturgiaren antolaketa, haurren katekesia eta emakumeen ardura (Ekintza Katolikoa) gomendatu zitzaizkidan bereziki lantzeko”. Bai landu ere.

Jendea inplikatzeko aparteko artista izan da, gozo-gozo. Adibide eta izen anitz eman ditzaket, eta gainera guztien oniritziarekin.

Lazkaoko parrokiako ohituren aldaketa bultzatu zuten bi apaiz gaztek: dukeari isipua ukatu, hiletak berdindu eta gari-soroak bedeinkatzeari uko egin zioten.


Batikano II.ak ate eta leiho guztiak ireki zizkion, “Kontzilioak ekarri zuen gertaerarik nagusia, ene ustetan, Ebanjelioa eta kristau herria aintzat hartzea izan zen. Apaizok ere, latina eta sotana kanpora, orduan ekin genion, elizako lanaz aparte, herriarekiko konpromisoa benetan lantzeko bideari”, hauek ere Hiazintoren hitzak.

Lazkaon Hiazintok, parrokiako apaiz lanez gain, egin zituen beste ekintza sonatuak honako hauek izan ziren: 1963an, San Migel parrokiaren ikastola fundatu zuten Hiazinto lemaiz eta Aitor Muruamendiarekin eta hiru Joxemari ezagunek lagundurik; 1964an, Baionako Biltzarrean euskara batuaren zina eta mezua sinatu zuten Lazkaoko bost herritarrek, besteak beste Hiazintorena ikus daiteke; 1966an, Euskaltzaindiko urgazle egin zuten; 1966-1967 urteetan, Ampo fundizioan esku lanean hasi zen, eta 1972-1986 urteetan, Lazkaoko Gurutze dorretan elkarrekin bizi izan ginen gozo-gozo eta konpainia ederrean. Elkarrekin izaniko pasarte eta anekdotak ezin konta hala ditut.

Dena den, Hiazintoren ekintzarik ospetsuena etortzeke zegoen, eta 1968an Ampon esku lanean zebilela gertatu zitzaion. Bere hitzak dira ondorengoak ere: “Handik hurrengo astelehenean Andoni Egiaren telefono deia nirekin egon nahi zutela esanez, eta non presentatzen zaizkidan Lazkaon Andoni bera eta Dodaka Salegi orduko 4L auto berri batekin, esanez, ‘Hau zuretzat. Utzi fabrikako lana, bai, eta ekin ikastolen zuzendaritzari’”. Gogotsu ekin zion mandatuari.

Harrez gero zenbat andereñok, irakaslek, irratietako esatarik, idazlek eta abarrek zor dizkiogu gure ogibidea edo hobiak Hiazintori! Ampo utzi, Donostiako Bergara kalean **GORDAILU** bulegoa eta Irakasle Elkartea sortu zuten bera buru zelarik, bilerak egiteko, irakasleen fitxategi, liburutegi, multikopia edukitzeko eta gero etorri zen Haurride denda. Gordailuk bi ekintza nagusi eta berezi izan zituen: **ikastaldiak eta editoriala**. Ikastaldietan pedagogia ekintzailea oinarritzat harturik irakasleak prestatzen ziren. Editorialak, berriz, sei liburugintza hauek argitaratu zituen, sarritan Hiazinto idazle edo arduradun zelarik. Berak idatzitako liburuxkak asko dira:

1. Hiztegiak: Ikastola hiztegia, Idazketa hiztegia, Nire lehen hitzak...
2. Pedagogi-metodologi liburuak: Berezko irakurbi-dea...
3. Eskolaurrea: Mintza, Lehen irudi-Lehen hitzak, Matematika hastapenak...
4. O.H.O – E.G.B.: Irakurgai, Ikasliburu, Esperientziak...
5. Ikastola Liburutegia: monografiaren bilduma, lau sailetan (Natur-Gizarte zientziak, Historia eta Geografia).
6. Mapak: Eskualdeak, Mendi eta Ibaiak, Komunikabi-deak... (Jaxinto F. Setien-en artikulua, JAKIN aldizkaria, 1979. urtea, 11 zk.).



Hiazintok, Lazkao utzi eta azken bi hamarkadetan, Hernaniko euskal teknikari lanetan jardun zuen, 1995ean erretiroa hartu zuen arte. Oso urte emankorrak ere Hernanin egindakoak. Itzultzaile eta kultura, hezkuntza eta euskara alorretan aritu zen buru belarri. Zer esan handia izan zuen, adibidez, gaur egun ezagutzen dugun kale izendegian, edo euskara zerbitzuaren sorreran, herriko toponimiaren berreskurapenean edo musika eskola martxan ipintzerakoan, eta beste hainbat eta hainbat proiektuetan.

Hiazintok, gizon nekaezina, Maria Jesus Iartza anderea-rekin batera, 2003an, argitaratu zuten lankidetzan liburu mardul hau; "Gure Baserriak. Hernani", oro har, 325 orrial-

de baditu. Hitzazurre adierazgarri eta ikuspegi zabal bate-tik idatzitakoa ere biek sinatu zuten. Aurkibidea auzoka (18) eta auzo horietako 175 solaskide elkarriketatu zituzten egileek. Liburuaren azaleko kolore gorritzaz biziak eta liburuaren baitan baserrien izenak, lau auzoetako multzo banaketa adierazteko erabilitako kolore berdinak eta abarrek argitalpenari Jorge Ullatek diseinu orokorrari ikuspuntu nabaria eman zion.

Gaur egun Hiazinto Andoaingo zaharren egoitzan dago, baina, ez zokoratu eta ahazturik. Era askotako omenaldiak egin zaizkio, azken aldi honetan. Omenaldirik estimagarriena, ordea, bisitaldiak onartzen ditu, hitzik gabe egon arren.



Agustin Ezponda, Rikardo Mendiola, Koro Etxeberria eta Juanjo Uriarekin, Andoaingo zahar egoitzan (argazkia: Xabier Lasa, "Jaxinto, ikastolen lemazain" liburuan).

JON ZABALETA

Ilustrazioaren arloan aitzindari eta euskal liburugintzan erreferentzia nagusitako bat da Jon Zabaleta. Horregatik, 2014ko abenduaren 18an, Euskal Editoreen Elkarteak, Euskal Idazleen Elkarteak, Euskal Irudigileen Elkartek, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak eta Galtzagorri Haur eta Gazte Literaturaren Elkarteak banatutako DABILEN ELEA Saria jaso zuen, bere ibilbidea aitortzeko. Azkeneko 40 urteotan ehun liburutik gora irudiz hornitu, komikietarako pertsonaiak sortu, egunkarietarako zintak osatu baititu.



Jon Zabaleta Larburu Hernanin jaio zen 1950ean. Gaztetan pankartak, kartelak, muralak eta... egiten hasi zen. Oinarrizko ikasketak egin ondoren, delineazioa ikasten hasi zen. Ikasketak bukatu gabe utzi, eta lanean hasi zen Hernaniko grafikagintza enpresa batean, han marrazkilari lanak egiten zituen (1968-1970). 1971an, Jorge Oteizak bultzatutako Debako Arte Eskola esperimentalean sartu zen; han bere iruditeria propioaren oinarriak jarri zituen.

Debako eskola utzi, eta berehala, 1973an, bere lanak argitaratzen hasi zen... gaur arte: Anjel Lertxundi, Asun Balzola, Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, eta beste hainbat autoreren ipuinen irudigilea izan da; liburuak ere ilustratu egin ditu, haur eta gazteei zuzenduak; horietatik asko, testu liburuak. Horrez gain, umore grafikoa, komikia eta bestelako marrazkiak ere argitaratu ditu, hainbat aldizkari eta egunkaritan; disko azalaren bat diseinatu, eta erakusketak ere egin ditu, banaka nahiz taldeka.

Gaur egun ere, esan bezala, ilustrazioak egiten eta marrazkiak argitaratzen jarraitzen du.

Jon Zabaleta oso gazte hasi zen marrazkigintzan, marraztea gustatzen zitzaiolako, "natural" ateratzen zitzaiolako, eta gaur egun ere, sortzen jarraitzen du "beharrezkoa" duelako. Bere ibilbide luze hori errepasatuko dugu honetan.

Mutikoa zela, eskolan-edo, marrazteari ekin zion; gaztea zela, Hernaniko giroak bultzatuta, pankarta, marrazki eta karikaturak egiten hasi zen: "... kalean gertatzen ziren gauzak ikusi, eta etxera joatean, segituan marrazten nituen. Marrazki pila nituen kalean genuen errepresioaz; osasunerako oso beharrezkoa ikusten nuen marraztea".

Hemezortzi urterekin-edo, arte grafikoetan hasi zen lanean, eta horrek aukera eman zion kartelak, marrazkiak multikopistetan-eta egiteko.




Debako Arte eskolatik pasa ondoren, han Oteiza ezagutu zuen: "Oteizak bai ematen zigula aitortpena herrian!", 27 urte zituenean, 1973an, prentsan hasi zen lanean: *Egin, Argia, Euskaldunon Egunkaia*... Egunero inspirazioa bilatu behar zuen, baina ez zuen "problemarik", bere "burua beti dabil istorioak osatzen"; egia esan, arazo bat bazuen "pertsonei eustea: bi edo hiru astez eusten nion bati, baina gero beste bat asmatzen nuen,... Baina istorioak beti izaten nituen".

Horretan zegoela, umore grafikoa egiten hasi zen, 1970eko hamarkadaren erdi-bukaera aldean, orduan umore grafikoak arrakasta handia izan zuen, aldizkariaren boom-a izan zen. *Berriak* eta *Euskadi* *Sioux* aldizkarietan lana egin zuen: "Egia esan, ez nuen ezer egin beharrik; etxean marrazkiz betetako kaxak nituen, eta...". Garai haietan hitzez esan ezin zena, marrazkiekin esaten zuen Jonek; egiten zituen marrazkiak "oso zuzena"k zirela, eta aukera ematen zutela "une hartan zailak ziren gaiak... marrazkien bidez errazago adierazteko".

Gero ilustrazioaren bidea hartu zuen, "leku propio bat"en bila asmoz. Orduan "hasi nintzen ipuinak egiten jo eta ke. Industria hori nahiko indartsu zebilen, eta aukera nuen lan egiteko". Ilustrazioak egiteko "ikasi" behar izan zuen: "Lan bat egin behar nuenean, liburutegian sartzen nintzen... eta asko irakurtzen nuen, denetarik;...". Horrek, gainera, denbora eman zion gauza asko egiteko, "...neure buruarekin egoteko, naturarekin, lagunekin... Ez zen prentsan edo enkargu motzekin bezala, lasaiago har nezakeen;... Gustuz egiten nituen lanak,... Oso atsegina zen, oso erromantikoa".

Bere bide nagusia marrazkia izan bada ere, bestelako adierazpide batzuk ere landu ditu, gauzak probatzea gustatu egin baitzaio. Adibidez, "... oraingo teknologiek, ... Egin izan ditut argazkiak, eskultura txikiak... eta bideoak ere bai". Edizioa asko gustatzen zaio, musikarekin, ahotsarekin asko saltseatzen du: "Denbora horretan pasatu dut; ez dakit denbora galdu dudana, baina ni gustura aritu naiz".






Beraz, esparru askotan aritu da: kartelgintza, komikigintza, prentsa, ilustrazioa... baina bat aukeratzean, ez daki zeinen alde egin. Jonek dioenez "... garaiak dira... komikiaren garaia oso polita zen. eta ilustrazioarena ere bai". Orain, esaterako, eskulanetan sartu da, eta "primeran": "Berdin-berdin ikusten dut neure burua...; sortzen jarraitzeko beharra daukat".

Zailtasunak izan arren, askotan esan baita ilustratzaile lana gutxietsia izan dela, errekonozimendua ailegatu zitzaion Joni: "...aitorpen apur bat iritsi..." zitzaion. "Euskal Herrian izan dugun gauza bat da hemen egin diren lanak beti etxerako izan direla, ez da egon merkatu bat, ez gara izan komertzialak; gu herrigintzan ibili gara. Nik hainbeste denbora pasatu badut lanean, izan da herria maite dudalako;...". Eta oso interesgarria iruditzen zitzaion Dabilen Elea saria jasotzea, finean, "eman didatelako eman behar zidatenek, hemengoek", bidegile bat izan delako: "ez naiz inongo akademiatar joan, baina, hala ere, asmatu dut, nituen baliabideekin eta nire kasa. Hau oso nirea, bakar-dadean egindako bidaia izan da".

MANUEL YABEN, MENDE OSO BATEN BEGIRADA

Joxan Goikoetxea Maritxalar



Horixe zen, hain zuzen, Manuel Yaben musikari handiak zuen ametsa, 100 urte betetzea. Eta aurten beteko zituen, azaroaren 12an, hilabete batzuk lehenago bere bihotz nekatua eta, harekin batera, musikari eta familiari eskainitako bizitza intentsua gelditu izan ez balitzaizkio.

Manuel bera ez-ezik, ingurukoek ere jarriak genituen ilusioak, eta antolatuak ekimenak berarekin ehun urte horiek ospatzeko, izan ere oso gustukoak zituen errekonozimendu agerpenak eta horrelakoak. Azkenekoa San Joan iragarpen kontzertuan, Preludioan, Musika Eskola Publikoko Akordeoi Taldeak egindakoa. ERESBIL Musikaren Euskal Artxibotik ere deitu zuten interesaturik, bera izango baitzen 100 urte horietara iritsiko zen lehen euskal musikari ezaguna; baina tamalez ez zen hala gertatu.

Omenaldi asko jaso zituen bizitzan zehar, horien artean lehenengotarikoa Hernaniko Adopzio Seme izendatu zutenekoa, 1952an. Hortik abiatuko gara Manuel Yaben ospetsuaren ibilbidea kontatzeko.

Hernaniko Udalak Hernaniko Adopzio Seme izendatu zuen, ez baitzen berez Hernanin sortua. Manuel Yaben Agirre Berastegin jaio zen 1915eko azaroaren 12an. Aita, Modesto Yaben, herriko ferratzailea zen, eta haren laguntzaile aritu zen frankotan gaztaroan.

Herriko organo-jole zuen osabarekin hasi zituen musika ikasketak. Oso ahots ederra omen zuen Manuelek, triple ahotsa. Herriko abesbatzan bakarlari izan genuen, eta, Manuelek berak kontatuta, Tolosako Mokoroa famatuak ere aipamen berezia egin omen zuen behin bera entzun zuelarik: "ume honek nirekin etorri beharko luke".

Hasiera haietan solfeoa eta pianoa ikasi zituen. Garai hartan akordeoia edo eskusoinuak sona eta arrakasta zuten herri txikietan, eta soinu-txikia (trikitixa) eta soinu handia ziren nagusi garai hartako erromeria, dantzaldi edo "bilera" izenekin ezagutzen ziren haietan. Euskal Herrian oro har txistuak eta dultzainak izan baziren ordua arte gehien entzundako instrumentuak, akordeoiak hartuko zuen protagonismoa hurrengo hamarkadetan, akordeoiak eta bere inguruan sortu ziren "orkestinak" eta "Jazzbanak" errazago bereganatu baitzituen orduan kanpotik iristen ziren musika berriak, dantzarako sortuak, latinoak, amerikarrak, etab. Yabenek berak hasiera batean akordeoia ez omen zuen oso gustuko, ez omen zuen begi onez begiratzen, baina Gerra Zibila garaian Pepe Yanci famatua entzun omen zuen, eta harritu eta liluratu egin omen zen akordeoiarekin egin zitezkeen gauzekin.

Manuelek bere kasa eman zituen lehenengo urratsak akordeoiarekin, modu autodidakta batean ikasi zuen jotzen. Eskuineko eskua modu natural batez jotzen zuen, pianoa aurretik jotzen zekielako, baina ezkerreko eskua bere kabuz ikertu eta ikasi zuen. Ezkerreko eskua hartu eta botoiz botoi entzun eta asmatu omen zuen nola zen sistema, eskema handi batzuk ere marraztu zituen guztia behar bezala ikasteko. Eta nola ikasi ere! Fama handia zuen Yabenen ezkerreko eskua mugitu eta dantzatzeko estiloak. Bere moldaketa eta partiturak oso estimatuak ziren ezkerreko eskuari ematen zion garrantziagatik, bai euskal doinu eta dantzaren arloan, bai eta beste erritmo eta estiloetan ere. Donostian fabrikatutako Larrinaga bat izan zen bere lehen eskusoinua, 1.600 pezeta kostatu zena. Askok estimatzen zuen familia hura, urte askotan trikitixa eta soinu handi dezente eta on fabrikatu eta konpondu zituzten Donostiako Egian zuten egoitzan.

Ez omen zegoen garai hartan irakasle nabarmenik, zioen Manuelek, eta bakoitzak bere estilo eta trikimailuak erakusten zituen jende aurreko saioetan. Orduan arrakasta handia zuten akordeoi lehiaketa eta txapelketek, eta Manuelek horietan emaitza eta garaipen dezente lortu zituen. Guztien artean sona handiena Espainiako I. Akordeoi Txapelketarekin lortu zuena. 1952ko ekainaren 28an izan zen Bartzelonan. Gero Bartzelonan bertan Munduko Txapelketara ere aurkeztu zen baina ez zuen eraman bere irudiz beharrezko prestakuntza eta instrumentu egokia. Ez da erraza imajinatzen garai hartako

errepertorioa, zailtasuna eta merituak, ez baitzegoen literatura zabal bat akordeoirako espresuki idatzia. Horregatik Manuel bezalako pertsonen moldaketa eta transkripzioek balio handia hartzen zuten. Aurretik pianoa eta organoa ezagutzeak abantaila handia eman zion akordeoilari moduan ikuspegi aberats bat izateko. Espainiako Txapelketa hartan C.M.Von Webber-en "Invitación al Vals" piezaren bere adaptazio bat jo zuen, besteak beste.



Manuel Yabenek Espainiako I. Akordeoi Txapelketa irabazi zuen, Bartzelonan (1952).

Titulu horrek ospe handia eman zion, eta orduantxe izendatu zuen Hernaniko Udalak herriko Adopzio Seme. Garai hartako egunkarietan eta irrati saioetan dezente nabarmendu zuten bere sari arrakastatsu hura. Urte hartako San Joan jaietako esku-programak ere aipamen berezi bat egin zuen Bartzelonan lortutakoagatik. Ordurako Hernanira ziren etorriak bizitzera Manuel Yaben eta Gas-teizen ezagutu zuen bere emaztea M^a Pilar Villaverde Larburu (Berakorte baserriko familiakoa). 1949. urtean iritsi ziren gure herrira. Alaba bat zuten, Marisol, eta geroztik Maite, M^a Cris eta Roberto, gerora ere musikari bilakatuko zena, Hernanin jaio ziren. Hasiera batean Kale Nagusiko Zabala okindegiko etxera etorri baziren ere handik gutxira Nafar kaleko Iriondotarren etxeko azken solairura joan ziren bizitzera. Handik urte batzuetara berriz Kardaberaz kalera (gaurko Andre kalera) aldatu ziren. Bertan musika akademia bat ere sortu zuen 70. hamarkadan, non solfeoa, akordeoia eta pianoa irakatsi baitzituen.



Bere ibilbide musikaren bi irudi.



Baina denboran atzera egin behar dugu berriro, urte askotako saltoa egin baitugu. 26 urte zituen Manuelek bere aitak Larrinaga hura oparitu zioenean. Horrek zera esan nahi du, aurretik urte dezente eman zituela musikaren esparruan pianoa eta organoa joaz. Horixe litzateke arrazoi garrantzitsuena akordeoiarekin hain modu azkar eta distiratsuan eman izana bere lehenengo pausoak. Hasi eta urte betera eman zuen bere lehen kontzertua Radio San Sebastian irratian, aitari eskainitakoa, eta laster egingo zen oso ezaguna inguruko herri askotako festa eta ospakizunetan.

Abilezia berezia zuen euskal doinuak eta bertsoak akordeoiarekin harmonizatu eta laguntzeko, horri esker aukera asko izaten zuen txistulari edo bertsolariekin aritzeko haiek lagunduz. Besteak beste, Uztapide handia, Roberto Garate txistulari ezaguna, Bergarako Gonzalez Bastida anaiak edo Luis Urteaga ordiziarrekin adiskidetasun handia izan zuen. Garai hartako akordeoi-jole asko eza-gutu eta kide izan zituen; haietako asko goraipatu egingo zituen bere tertuliaetan: M^a Luisa Irastorza, Amadeo Cuenca edota Enrike Zelaia altsasuarra.

Manuel, Uztapide bertsolariarekin.





“Camaguey” laukotearekin Portugal eta Marokora eginiko giran.

Baina Manuel Yaben ez zen erraz konformatzen zen horietakoa, eta musikarekin bizimodua atera nahirik Bartzelonara jo zuen. Bertan Rigat kafetegi ezagunean hasi zen jotzen. Catalunya plazan zegoen dantzaleku ezagun hori, eta garai hartako orkestra ospetsu bat zegoen bertan. Ez omen zen akordeoia hain ezaguna oraindik Bartzelonan, kontatzen zigun berarekin izaten genituen solasaldietan. Espainian oraindik gerraosteko garaiak ziren, eta Italiatik iristen ziren instrumentuak eta partiturak lortzea ez omen zen hain erraza. Halako batean gaueko saio haietako batean gizon bat inguratu eta berarekin eraman nahi zuela esan zion, gizon hura Vicenç Montoliu zen, gerora hain ospetsu egingo zen Tete Montoliu jazz piano-jolearen aita. Montoliu jauna Liceu antzokiko eta Bartzelonako bandako musikari profesionala zen; bere orkestran hasiko zen lanean, eta bere etxean bizitzen. Han ezagutu zuen Tete mutikoa 6 urterekin jada abilezia aparta zekarren piano-jolea.

Urte batzuk eman zituen, bai orkestra honetan, eta bai beste batzuetan ere (Murillo, Oro del Rhin, Casablanca etab.). Haietatik ezagunena eta denbora gehien pasa zuena “Camaguey” laukotea izan zen. Beraiekin zazpi urtez Portugal eta Afrikako iparraldean ibili zen bidai dezente eginez, eta toki askotan joaz (Aljer, Tripoli, Casablanca, Tanger etab.). Laukote famatu honek ahots ederrak zituen, eta akordeoia, pianoa, saxoa, gitarra eta perkusioak zituzten instrumentu laguntzaile moduan.

Hainbat disko grabatu zituzten, eta Londresera salto egiteko aukera ere izan omen zuten.

Baina bizimodu neketsu honetaz zertxobait aspertu, eta etxera bueltatzea erabaki zuen laukotea desagiteko zegoen unean. Ordurako bere emaztea zena ezagutua zuen, berarekin ibili baitzen harat honat (Marisol alaba zaharrena Tangerren jaio zen). Esan bezala, Hernanira etorri ziren bizitzera bertan bizi baitzen Sole Villaverde, Manuelen emaztearen ahizpa, zenbaitek gogoratuko duten moduan herriko plazan zegoen telefono bulegoan lana egiten zuena.

Behin baino gehiagotan musika utzi, eta fabrika batean lanean hasteko gogoa omen zuen Yabenek, ez baitzen erraza lau seme-alabako familia aurrera ateratzen, baina emazteak eta familiak berak animaturik horretan jarraitu zuen, hobeki egiten zekien horretan.

Ordurako “Akordeoiaren magoa” edo “El mago del acordeón” moduan ere ezagutzen zuten hainbat tokitan, eta diskoren bat ere grabatu zuen Columbia diskoetxearekin. Ez zen oso esperientzi atsegina izan berarentzat, ez baitzuen lortu bere gustura jo eta grabatzea; eta ez zuen berriro errepikatu esperientzia.

Pena handia da ez baitzaizkigu bere estilo eta abildadearen aztarnarik geratu grabaturik.



Ikasle nabarmenak ere izan zituen Hernanin garai hartan, horien artean Pedro Oruezabala, "Ortxas", gero Frantziara joango zena ikasketak egitera R. Gazave ospetsuarekin, eta munduko akordeoi txapelketan bigarrenengo saria lortuko zuena. Horrela eman zituen urte batzuk, akordeoia, pianoa eta organoa jo eta irakatsiz han hemenka: Tolosa, Villabona, Lasarte, Astigarraga, Donostiako Seminarioa, Aieteko Marianistas eskola etab. Iruñean ere sortu zuen akademia bat kontinuidade gutxi eduki zuena, eta Madrilen beste bat sortzeko asmoa ere agertu zuen.

1965. urteko gertakizun batek markatu zuen Manuelen bizitza, izan ere Donostiako Musika Kontserbatorioak akordeoi katedra sortzeko oposiziorako deialdia egin zuen. Europa osoan lehena izan zen Donostiakoa katedra

hau sortzen, akordeoiak denbora gutxian hartu zuen popularitate eta garrantziaren seinale. Francisco Escudero musikagile ospetsua zen orduan zuzendari, eta bultzada nabarmena emango zion gure instrumentuari. Lehia handiko oposizioak izan omen ziren, eta artean gazte bat zen Mikel Bikondoa donostiarrak irabazi zituen. Oroitzapen gazia gelditu zitzaion Manueli, eta geroztik oso harreman urruna izan zuen Kontserbatorioarekin eta bertako katedratikoarekin. Behar zenean Manuel karakter handia erakusten zuen, eta gauzak eta argudioak beldurrik gabe erakusten zituen. Kontuan hartu behar da, garai hartarako 50 urte bazituela Manuelek eta ibilbide eta ikuspegi helduago batekin iritsi zela lehia hartara. Ordurako piano eta organo ikasketak ere bukatuak zituen Donostiako Kontserbatorioan bertan. Ez zuen sekula barkatuko.





Baina aurrera jarraitu zuen bere izaera eta pentsamen-
duekin sendo. Musika zaletasuna ez zuen galdu, eta Bach
edo Jazza zuen oso gogoko entzutea. Organo-jole mo-
duan, besteak beste, herriko Eliz Parrokiko koruarekin
ere aritu zen. Gogoan zituen garai hartan interpretatu-
riko Garbizuren "Gure Meza" edo F. Escuderoren "Ileta"
edo "Arantzazu". Eta gogoan ditugu herriko txistulariekin
batera hainbat elizkizun berezietan egindako saioak ere,
San Joan Martxa, San Inazio Martxa etab.

Handik denbora batera, eta Hernaniko Bandako zuzen-
dari Juan Jose Iruretagoiena "Orio" k eskatuta, Hernani-
ko Musika Eskolan hasi zen irakasten, orduko Udal Mu-
sika "Akademia" izenekoan. 1972tik 1984ra egin zuen
lan udaletxeko azken solairuko lokaletan Iruretagoiena
"Jauna" rekin batera. Hantxe ezagutu nuen nik umea
nintzelarik 1975. urtean. Garai hartan Iruretagoiak
ikasle euskaldunak hartzen zituen solfeoa irakasteko, eta
Yabenek, berriz, erdaldunak; beraz, ez nuen harreman
zuzena izan hasieratik berarekin. Umeok, Yabenek be-
rak irribarrez gogoratzen zuen moduan, beldur dezente
genion bere jenio bizia zela eta. Iruretagoiena noizbait
faltatzen bazen, kanpora egin behar zituen bidaiak zirela
eta, Yabenekin egin behar genituen egun hartakoak, eta
umeen erdiak ez ziren gelara sartzen ere, pasilloan ema-
ten zuten abisua beldurrez. Nik, aldiz, oso gustukoa nuen
entzutea nola laguntzen zizkigun berak solfeo lezioak
pianoarekin. Haiek izan ziren nire ustez nire lehenengo
sentsazio edo inpresio sakonak musika entzunez. Berak
ere gogoan ninduen ni begiak handi-handi eginda, be-
rak bere begirada sakon, zorrotz eta zuzenarekin: "Eta
hik zer duk, ez al duk kantuan hasi behar edo?" Gerora
musikari bihurtu nintzenean, beti izan nuen Manuel mi-
resle, nire estudiora eta nire emanaldietara etortzen zen
bakoitzean aholku eta animo dezente ematen zizkidan.
Eta errietan egin behar bazuen ere, kupidarik gabe. Be-
hin "Agur Jesusen ama" doinua grabatzea suertatu zi-
tzaidan, eta berari erakutsi nion. Nik orduan zortzikoaren
airea nabarmen ezkutatu nuen nire moldaketan. Hura ha-
serrea! Ordurako eskuan eramaten zuen bastoia gora eta
behera ikusten nuen bere begi-dardarekin batera...
Gerora ere ohartu nintzen Manuelek oso gogoko zituela



Bere etxean ETBrako eginiko elkarriketa batean.

umeak. Ikusi besterik ez zegoen seme-alaba eta ilobekin
nola aritzen zen. Hori bai, lanerako eta irakaskuntzarako
oso serioa izan zen, bere buruarekiko zen bezala, eta hor
ez zegoen bromarik, diziiplina zen berarentzat guztia-
ren oinarri.

Udaletxeko musika eskolan aritzeaz gain, Kardaberaz ka-
leko akademian ere irakatsi zuen hainbat urtetan, ikasle
nabarmen eta saritu dezente lortuz.

1984. urtean hartu zuen jubilazioa. Geroztik organo-jole
aritu zen Hernaniko eliz parrokian bai eta Astigarragako
Andra Mari elizan eta, azkenik, Agustindarren komentuko
elizan ere. Azkeneko horretan asko estimatzen zuten, eta
musika irakasten ere aritu zen bertako hainbat mojari.
Noizbehinka joaten nintzen hura laguntzera, partitu-
retako orriak pasatu eta hura entzunez gozatzen. Bere
jenio bizia eta pertsonalitatea nabarmen sumatzen ziren
jotzeko zuen moduan. Inprobisazioa zuen oso gogoko,
ordurako partiturak irakurtzeko gogo gutxiago zuen, eta
gustura aritzen zen bat-batean etortzen zitzaiona jotzen.
Erregistro indartsuak edo "tutti" ak dantzan ibiltzen ziren
bere hankekin batera. Organoa konpondu eta afinatzen



Bizitza lasaia eraman zuen behin erretiroa hartu zuelarik, etxean ere bazuen organo elektroniko bat, bere gustuko gauzak jotzeko. 2004. urteko abenduaren 2an emaztea, Pilis, hil egin zitzaion, eta bakarrik gelditu zen etxean, nahiz eta seme-alabak inguruan izan dituen beti aita zaintzen eta maitatzen. Egunero ikusten genuen Manuel, bueno, barkatu artikulua bukatzeaz dagoelarik, Manolo esan beharko dut, horrela ezagutzen baikenuen denok, Urbietan kalean paseatzen betidanik hainbeste zaintzen zuen elegantziarekin.

Hainbat omenaldi jaso zituen azken urteetan.

Emaztearekin eta familiarekin urrezko ezteiak ospatu zituztenean, eliz parrokoiko mezara Jose Manuel Azkue organo-jole handia etorri zen organoa jotzera.

2001eko azaroaren 11n Hernaniko Udalak omenaldia eskaini zion bere ibilbide luze eta oparoagatik.

2004. urtean Zarautzen antolatu zen I. Nazioarteko Akordeoi Kongresuan (HAUSPOZ Euskal Herriko Akordeoi Elkarte) adineko akordeoilari nagusienak bildu eta omendu genituen; Enrike Zelaia, Miguel Sagastume, Felix Aranzabal eta Manuel Yaben bera. Une historikoa bizitu genuen, ETBk jaso eta emankizun eder bat ere eman zuen.

Eta musikarekin zerikusi gutxiago duena, baina Hernanin ongi estimatzen ditugun "Karmen" eguneko ospakizunen barruan, 2008. urtean Kaxkoko alkate izendatu zuten. Kaxko elkarteak egun berezi horretarako aginte makila eman zion. Manoloren eskerron eta poz irribarrea betirako gelditu zitzaigun oroimenean.




Benta-berri jatetxean lagunekin: Alejandro Arregi, Juanito Zubizarreta, Miguel Sagastume, Nemesio Etxeberria eta Joxan Goikoetxearekin.

zuenak ere erdi broma erdi serio botatzen zuen: "Gaur Yaben aritu dek gustura, eman beharko zaio errepasso bat laster instrumentuari...".

Lagun artekoak ere ederrak izan ziren eskaini eta agertutako adierazpenak. Horietako bat Aranoko Benta-berri jatetxean egin geniona, Alejandro Arregi (Zarauzko txakolin egile ezaguna), Juanito Zubizarreta (Larraitzko jatetxea), Miguel Sagastume (Mago de Urki) eta Ameztaketako Nemesio Etxeberria bertan zirela. Han aritu ginen azkenekoz eskusoinuarekin kantuan eta solasean. Askok estimatzen zituen Manolok nik Frantziako Musette eta vals doinuak jotzen nituenean. Horrela aipatu zuen behin baino gehiagotan: "Nik gaztaroan baliabideak izan banitu Frantziara joango nintzen, Goikoetxeak egin zuen moduan...". Baina ametsak amets, bizimodu oso, zintzo eta oparoa egin eta emanda utzi gaituela pentsatzen dut. Azkeneko egunak Sandiusterriko zaharren egoitzan eman zituen, osasuna zela eta bertara hurbildu baitzuen familiak. Eta bertan, buruak, bizitzako une horietan egiten duen moduan, bere bizitzako hasierara eraman zuen. Berastegi eta Berastegiko euskera garbi eta ederra agertu zigun berriro, hainbat urtetan eta agian kanpoan eman zituen garaien eraginez gutxiago entzun zitzaiona. Musika jotzea bezain gustagarria zen Manolo euskeraz hitz egiten entzutea. Bada YouTube web orrialdean horren lekuko bat. EKI, DHBko Gizarte Zientzietako proiektu ekimenaren barruan elkarriketa bat egin zioten bere gazte denborako gogorapenak guregana ekarri.

2015eko maiatzaren 21ean zendu zen Manuel Yaben Agirre, mende oso baten testigu izan den musikari bikaina.



AGUSTIN ADARRAGA:



Agustin Adarraga eta Maria Rosa Almirall emaztea, joan den urteko Gabonetan.

**“Hernanira itzultzen
naizenean etxera
bueltatzen naizela
sentitzen dut”**

Agustin Adarragak (Hernani, 1931) hamazazpi urte zituela utzi zuen atzean Hernani. Madril-en eta Zaragozan izan zen lehendabizi; eta lan arazoek behartuta, maletak egin, eta milaka kilometroko bidaiari ekin zion Maria Rosa emaztearekin. Australia izan zuten helmuga, eta han egin dituzte 56 urte; bizitza osoa. Urteek eta bi- zipenek, ordea, ez dute jaioterria aldatzen; eta, are gutxiago, sentimendua. “Agustin Adarraga, de Hernani” izenarekin sinatzen du beti, Agustinek.

Esti Zeberio Zubelzu

Abenduan 56 urte beteko dira emaztearekin batera, maletak egin, eta Australiarako bidea hartu zenuela. Zeren ondorioa izan zen erabaki hura?

Espainian zail zegoen gauza, ez genuen etorkizunik. Australiatik, ordea, berri onak zetozen. Deialdi bat zabaldu zuten bertan lan egin nahi zutenentzat, eta nire emazteak eta nik, orduan neskalguna, pausu hori emateko eskatzen zuten elkarrizketa egin genuen. Baietza jasotzen bagenuen, ezkondu, maletak egin, eta Australiarako bidean jartzeko prest ginen. Bagenekien, gainera, Juan Jose Zabaletak, gure lagun minak esanda, Australian bazezgoela lana, eta bizitzeko ematen zuela.

Eta nola joan zen elkarrizketa hori?

Egin genuen, eta gairitu ere bai. Ez zen, ordea, espero bezain sinplea izan. Elkarrizketan ondo moldatu ginen,

baina azterketa psikologikoan arazoak izan genituen. Ofizinista gisa eman nuen izena, baina nire abizena eza-guna egin zitzairen, eta ideia burutik kentzen saiatu ziren. Maria Rosari, haurdun al zegoen ere, galdetu zioten... Azkenean gairitu genituen frogak, eta bizitza berri bati ekin genion Australian.

Nola gogoratzen dituzu Australian bizitutako aurre-neko urte haiek? Zaila izan al zen?

Oso zaila izan zen. Hasteko, hizkuntza, ingelesa, ez genuelako dominatzen. Maria Rosa eta biok ingelesa ikasi genuen batxilergoan, baina Melbournera iritsi ginenean dena zen berria. Eta kulturak ere, ezberdinak ziren. Gu latinoak ginen; beraiek anglosaxoiak. Pentsa, bertako Udalera jo genuenean gure izenekin ere, arazoak izan genituen...

Izenekin arazoak? Eta hori?

Beraientzat ni Agustin(a) nintzen; eta nire emaztea Maria Adarraga. Jarri gure lekuan... dominatzen ez duzun hizkuntza batean, nola azaldu Espainian bi abizen erabiltzen ditugula? Eta Agustin frantsetatik datorren izena dela? Gauzak errazte aldera, ingelesez nire izena auto ingelesez berdin zela esaten nuen, Austin. Ezizena pilako izen bezala erregistratu behar izan nuen Commonwealth-then lanean hasi ahal izateko! Eta nire emazteak nire abizen hartu beste irtenbiderik ez zuen izan. Maria Rosa Almirall Vilaró izatetik, Maria Adarraga izatera pasa zen.

Nolakoa zen aurkitutako Australia?

Lana eta bizi kalitateari dagokionean, Espainian baino errazagoa. Iritsi eta gutxira unibertsitatean eman nuen izena; hiru urteko ikasketak egin nituen, eta ondo kokatu nintzen.

Zertara dedikatu zara Australian?

1960ko urtarrilean, peoi gisa hasi nintzen Melbournen. Ekainetik 1967ra Brisbaneko Gurutze Gorrian egin nuen lana. Blook Banken, biokimiko gisa kokatu ninduten, eta garai horretan joan nintzen unibertsitatara. Eta 1967tik erretiratu nintzen arte, manager eta biokimiko kliniko gisa aritu naiz lanean. 30 urte egin ditut Australiako Commonwealth Pathology Laborategian. Mediku patologo bat izan nuen nagusi gisa.

Familia ere izan zenuten...

Bai, bi alaba eta hiru seme: Rosemary, Maria Cristina, Xavier Jose eta Agustin Ramon; Brisbanen jaio ziren horiek. Eta Ignacio Townsvillen.

Non bizitu izan zara?

Hasieran, zazpi urtez, Brisbanen bizitu nintzen, eta 1967az geroztik, Townsvillen bizi naiz.

Nolako herria da Townsville?

Gabonetan euri tropikala izaten dugu; eta urte osoan zehar, klima atsegina izaten da. Townsville kostan dago, hondartza du... Donostia gogorarazten dit.

Erraza izan al zen ingelesa ikastea?

Niretzat ez... azkar ikasi behar nuen, denbora gutxian, lana bilatzeko behar beharrezkoa bainuen. Eta ikasi bakarririk ez, maila ona lortu behar nuen. B.Sc. karrera bukatu nuenean oraindik ez nintzen irakasleari ulertzeko gai. Azterketak idatziz egiten genituen, eta hala defenditzen nintzen. Bost urte behar izan nituen ondo hitz egiteko, nuen mailaren inguruan komentariok ez entzuteko. Gai honen inguruan eztabaida asko izan nituen Bill Douglassekin, Renoko (Nevada) Unibertsitateko euskara irakaslearekin. Horren arabera, euskaldunek erraz ikasten genuen ingelesa. Bai, Tarzanek hitz egingo lukeen ingelesa bai: bai, nik jan, nik edan eta hark pixa egin...

“Bost urte behar izan nituen ingelesa ondo hitz egiteko, nuen mailaren inguruan komentariok ez entzuteko”.



Agustin Adarraga joan den urtean, Basco de North Queenslanden egindako euskal festan.

Eta zein teknika erabili zenituen ahalik eta azkarren ikasteko?

Seme-alabei ingelesez hitz egiten hasi nintzen. Eta horretara ohitu nintzen, eta gaur egun ere, hala hitz egiten diet. Maria Rosak berriz espainolez hitz egiten zien, eta egun elebidunak dira.

Euskarak bizirik jarraitzen al du zugaran? Transmittitu al duzu familian?

Bai, nigan bai. Egunero irakurtzen dut KRONIKA. Emazteak katalanez hitz egiten du, eta etxean zein hizkuntza hitz egingo den erabaki behar izan genuen, eta espainola aukeratu behar izan genuen. Hemen, 'Club Vasco' delakoan elkartzeko garenean ere, egoerak hala behartuta, ingelesez hitz egin behar izaten dugu.

Adarragatar peto-petoa izanda, kirola ere zure bizitzaren parte izan da Australian. Hernanin hain preziatua zenuen eskubaloiarekin saiatu bazinen ere, squashean egin zenuen karrera.

Squasha izan da nire bizitza. Familiako medikuak, Joe Leongek, esan zidan euskalduna izanda, squasha nire



Agustin Adarraga, euskal zentroan egindako ongi etorrian.

kirola zela. Eta hala, egun batean, squashean jokatzera eraman ninduen, bere lagun batzuekin. Squashak eta pilotak, zehazki palak, badute antza. Pilota bati jo, eta pareta-aren kontra jokatzeko da. Fisikoa oso garrantzitsua da. Hala ere, ezberdintasun asko era badituzte bi kirolek: squasheko kantzak oso txikiak dira, pospolo kaxak ematen dute pilotalekuen ondoan... eta lau pareta dituzte, trinketeen antzera. Jokatzeko moduan ere, bada aldea... Hala hasi nuen squashean izandako ibilbidea, eta segituan elite mailara iritsi nintzen; eta bost urtetan, Open jokalaririk onena izendatu ninduten; 36 urte nituen orduan. Toronton (Kanada) squasheko mundiala ere irabazi nuen, 50-54 urte arteko kategorian.

Zure seme-alabak ere, kirolariak izan al dira?

Bai, guztiak izan dira eliteko kirolariak. Agustin iritsi da urrutien; Australia, Espainia eta Europako txapelduna izan zen squashean; eta bi herrialdeen ordezkaria izandakoa da.

Deskubritu al duzue zein den adarragatarrek duzuen gene hori, kirolerako plus bat ematen dizuen?

Genea baino gehiago, afizioa eta lan gogorra dira klabeak.

"Adarragatarrok, kirolari genea baino, afizioa dugu. Lan gogorra da klabea".

Nola definituko zenituzke australiarrek?

Zaila da definitzea, lortuko banu, Nobel Saria niretzako izango litzateke. Ingelesak handiuste asko dute, sorbaldaren gainetik begiratzen dizute... Australia ingelesaren kolonia dela kontuan izanda... Hori erakusten duten adibide asko ditut, nik bizitutakoak...

Bizi dugun krisi ekonomikoak bultzatuta, geroz eta gehiago dira kanpora bizitzera joan behar izan direnak, eta herrialde askotan ez dira ongi etorriak izan. Noizbait sentitu al zara etorkin Australian?

Bai, eta oraindik, batzuetan, hala sentitzen naiz. Gaixotasun kroniko bat bezalakoa da.

Hernanin jaio zinen, baino urte gehiago daramatzazu jaioteritik kanpo. Nola bizi duzu hori?

Hernani 17 urterekin utzi nuen Hernani, eta 84 ditut orain. Hala ere, beti izan eta sentitu naiz hernaniarra.

Joko Olinpikoekin kointziditzen, lau urtetik behin Hernanira etortzen saiatzen zara, adarragatarren bilkurara. 2016an, Rio Janeiron dira eta uztailean duzue hitzordua.

Guretzat hitzordu garrantzitsua da, Rafa iloba eta biok hasi ginen antolatzen. Orain, ordea, mina sentitzen dut; osasun arazoak medio, ezingo dut parte hartu.

Hernanira etortzean, zein izaten da errituala?

Familia eta lagunekin elkartzea, txikiteatzea, euskaraz hitz egitea eta Adarrara igotzea. Azken hau ordea, ezinezkoa dut orain.

Nola mantentzen duzu sorterriarekiko duzun lotura estu hori?

Itzultzen naizenean, etxera bueltatzen naizela sentitzen dut. Tolosa pasatzen dugunean, kosta egiten zait eserita egotea; eta Urnietara iristen garenean, Hernani noiz hasi zain egoten naiz, irrikan.

"Bueltan naizenean eta Tolosa pasatzen dugunean, kosta egiten zait eserita egotea; eta Urnietara iristen garenean, Hernani noiz hasi zain egoten naiz, irrikan".

Eta Hernanin geratzen zara etortzen zarenean?

Bai. Laureano Alustiza gure lagun mina etortzen da gure bila Donostiako tren geltokira. Gure egoitza Hernanin egoten da, Jose Luis Anza eta Mabel Irazusta iloben etxean geratzen gara.

Seme-alabak, bilobak... Australian jaioak dira gehienak. Zein da Euskal Herriarekiko eta Hernanirekiko duten lotura?

Bost seme-alabak Queenslanden jaioak dira, Australian. Horietako bi Madrilera ezkondu eta bertan bizi dira; eta bost biloba ditut bertan. Agustin eta bi alabek bost seme-alaba izan zituzten, hauek, Australian. Guztiak hartu izan dute parte Hernanin lau urtetik behin egiten dugun Adarragatarren festan. Euskaldunak sentitzen dira.

Urteetan atzera egin eta Hernanin bizi zinen ume-gazte garai haietara joango bazina... Zer etortzen zaizu burura?

Zerbaitekin geratu beharko banu, euria gogoratzen dut; leihoko kristalean jotzean ateratzen zuen soinu hura etortzen zait burura...

Noizbait pasa al zaizu burutik Hernanira bizitzera itzultzea?

Ez. Australiara etorri eta bederatzi urtera, etxea, kotxea eta lanpostu on bat genituen hemen. Hala ere, Espainiara eta Euskal Herrira itzultzea erabaki genuen, egoera nola zegoen ikusi, eta bueltatzeko asmoarekin. Australian, gure bizilagunak, inongo karrerarik gabe, abereentzako pentsua salerosten zuen, eta dirua egiten zuen gainera. Espainian eta Euskal Herrian, anuntzio batean, lanpostu berdinerako albatari karrera eta bi hizkuntza eskatzen zituzten. Australiara itzuli ginen.

KANTUZ ABESBATZAK, 25 URTE

Nuria Barba eta Marirro Yeregi



1989 urteko bukaera aldean KANTUZ Musika Elkarteko kide ziren Jaione Escuderok, Josune Aranburuk, Karmele Azpeitiak, Fernando Ederrak eta Susi Elosegik Hernaniko ikastetxeetan musikako eskolak eskaintzen zituzten. Hernanin beti egon den abesteko zaletasuna eta grina ikusirik, harrituta zeuden herrian Parrokiako Abesbatza besterik ez zegoelako; hutsune bat zegoenez, abesbatza herrikoia sortzeko deialdia egin zuten.

Ikastetxeetan bereziki egin zuten deialdia, eta horietatik, ahoz aho zabaldu zen deia herrian barrena. Lehenengo entsegarako ehun lagun inguru bildu ziren Udalak utzitako garai hartako musika eskolako gela batean. Adin eta ofizio askotariko jendea animatu zen abesbatzaren sorreran: gazteak eta erretiratuak; okinak, igeltseroak, irakasleak... aurretik beste abesbatza batzuetan arituak edota besterik gabe kantatzeko gogoia zutenak. Denetarik zegoen.

Jaione Escuderok hartu zuen lehenengo zuzendaritza, eta lehenengo kantarekin hasi ziren: Lesbordesen "Kantuz". KANTUZ Elkartea sortzailek, eta lehenengo kanta "Kantuz": **KANTUZ Abesbatza** sortua zen.

Hasierako "boom" hori igarota, zenbaitek abesbatza utzi egin zuen, baina taldeak ez zuen indarrik galdu. Abesbatzako partaideen asmoa herrikoia izatea zenez, **KANTUZ Abesbatzak** 1990eko Santa Ageda bezperan kalez kale eskaini zuen bere lehenengo emanaldia.

Historian zehar, lau zuzendari izan ditu **KANTUZ Abesbatzak**; lau etapa ezberdin izan dira, zuzendari bakoitzak bere estiloa eman diolarik.

Lau urte igaro zituen Jaioneren zuzendaritzak abesbatzari nortasun propioa eman zion. Urte haietan, herriko kultur ekintzetan parte hartzen hasi ziren (herriko festak,-



1991. urtean Sandiusterrin eskainitako emanaldiaren ondorengo argazkia.



1993ko abenduaren 13an Egunkaria festan hartu zuen parte KANTUZ Abesbatzak.



2006an, Sandiusterrin eginiko kontzertua, Amaia Sasiain da zuzendaria.

Gabonak, Santa Zezilia, Santa Ageda, eta herriko beste zenbait ekimenetan). 1991. urtean Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko partaide izateko erabakia hartu zuen **KANTUZ Abesbatzak**. Horrek zekartzan konpromisoak betetzen saiatu ziren, eta horren ondorio izan zen, hain zuzen ere, herritik kanpo eskainitako hainbat emanaldi: Oiartzunen, Oñatin...

1993. urtean, Javier Zubimendik hartu zuen batutaren erreleboa. Berak hartu baino lehen, boladatxo batean, Arantxa Astigarraga aritu zen zuzendari lanetan.

Sormen handiko zuzendaria da Javier, eta kantutik harago joaten zen. Berarekin egin zituen **KANTUZ Abesbatzak** ekintzarik berezienak, berak uztartu baititu kantua- rekin batera dantza, antzerkia...

Zubimendiren zuzendaritzapean egin zituen abesbatzak, baita ere, Euskal Herritik kanporako lehenengo ir-

teerak: Jaca, Castres (Frantzia), Vilassar de Dalt (Bartzelona)... Azkeneko horretan oso emanaldi bitxia egin zuen, Hernaniko azeri dantza, dantza ezberdinak, kantua... uztartuz. Javier izan zen, baita ere, "Kantuz Eguna" sortu zuena, gaur egun **KANTUZ Abesbatzak** urtero ospatzen duena. Eta dudarik gabe, Javierrekin egindako emanaldi bereziena "Tangoka"n parte hartzea izan zen.

2003ko irailean Amaia Sasiainek hartu zuen erreleboa. **KANTUZ Abesbatza** sortu zenetik ama bertako partaide zuen, eta horrexegatik txikitatik joaten

zen Amaia ama laguntzera entsegu guztietara. Handik urte batzuetara, taldean kantari ari zen, eta gutxira zuzendaritza ikastaroak ere jaso zituen. Amaiak gaztetasunaren freskura eman zion abesbatzari.

2007an Igor Arroyok hartu zuen zuzendaritza, **KANTUZ Abesbatzak** izan duen lehenengo zuzendari profesionala. **KANTUZ Abesbatzak** gain, Astigarragako Aiztondo Abesbatza eta Orioko Salatxo Abesbatza zuzentzen ditu. Musika ikasketak Donostiako Musika Kontserbatorioan, Madrilen eta Musikenen, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegian, egin ditu.

Igor oso ondo txertatu da **KANTUZ Abesbatzan**. Bera- rekin iritsi gara telebistako "Oh happy day" programan parte hartzera, Italiara joateko dirua biltzeko, hain zuzen ere, eta berak erakutsi digu, baita ere, musika sakroaz gozatzen, besteak beste, instrumentuen laguntzaz kantatu dugulako hainbatetan.



KANTUZ Abesbatza (2011).

KANTUZ Abesbatzaren errepertorioa mota desberdinetako kantek osatzen dute: euskal folklorea, nahiz beste lurraldeetakoa, eta polifonia. 25 urte hauetan honako emanaldi eta ekintzetan aritu da:

• **Herrian egin diren (eta egiten jarraitzen dituen) emanaldiak:**

- Santa Ageda bezperako kale buelta.
- Inauterietako hainbat konpartsa (Beltzen historia, Aita Santuaren etorrera, Rocioko bidea).
- Kontzertu sakroa, Aste Santu inguruan.
- Kantuz Eguna, maiatzean.
- San Juan jaietako programan parte hartzea: Preludioan, herriko beste taldeekin batera, eta San Juan bezperako emanaldian, Ozenki abesbatzarekin.
- Euskal Jaietan, herriko beste abesbatzekin batera.
- 1994 urtean hasi, eta urtero Gabon Kantu Jaialdi berezia antolatzen dugu, herriko beste abesbatza eta eskolak parte hartzera gonbidatuz.
- 1995 urteaz geroztik, Santa Zezilia egunean Hernaniko Txistulari Bandarekin emanaldia eskaintzen diogu herriari.
- Abenduaren 24an, Gabon gaueko kale buelta.



2009ko Santa Ageda bezperan.



2008ko Inauteriak: "Rocioko bidea".

Kantuz Eguna (2015).





Gabon Kanten Jaialdia. 2013.

- **Hainbat herri ekintzetan parte hartu dugu:** ospatzen diren "KORRIKA"tan; Donostiako belodromoan ospatutako "Egunkaria Festa"n (bi aldiz); Anoetako estadioan, "Bai Euskarari" kanpaina barruan antolatutako jaialdian; "Gure esku dago" ekitaldi ezberdinetan...
- **Urte hauetan zehar Euskal Herriko hainbat lekutan eskaini ditu emanaldiak:** Oiartzunen, Oñatin, Beran, Zumaian, Lezaman, Donapaleun, Gasteizen, Getxon, Astigarragan, Orion, Iruñean... Hainbat urtetan, Lasarte eta Andoaingo abesbatzekin batera, Topaketak antolatu ditu hiru urtetik behin, beste bi herriekin txandatu.
- **Euskal Herritik kanpoko emanaldiak:** Jaca (Huesca), Castres (Frantzia), Vilassar de Dalt (Bartzelona; bidaia horretan, Montserrateko Basilikan abesteko aukera izan genuen), Sant Celoni (Bartzelona), Lueña (Asturias), Orgiano eta Brendola (Italiako Vicenza eskualdean), Cardedeu (Bartzelona)...
- **Jarduera bereziak:** Donostiako Artzain Onaren Katedralaren 100. urteurrena ospatzeko antolatu ziren kontzertuetako batean abestu zuen beste bi abesbatzekin

batera; Chillida-Leku museoan Donostiako Musika Hamabostaldikohasiera kontzertu batean hartu zuen parte; Euskal Telebistak eskaini zuen "Oh Happy Day" lehiaketan parte hartu zuen, Euskal herriko zenbait abesbatzen artean.



"Bai Euskarari" kanpaina barruan antolatutako jaialdian parte hartu zuen KANTUZek, eta Anoeta estadioan kantatu zuen.



1998. urtean kantatzera joan zen KANTUZ Abesbatza Bartzelonara, eta aukera izan zuen Montserraten abesteko.



2004. urtean Topaketak Hernanin egin ziren.



ETB1eko "Oh Happy Day" lehiaketan.



KANTUZ Abesbatzak Donostiako Musika Hamabostaldiko hasiera kontzertuetan hartu zuen parte (Chillida-Leku museoa, 2001eko abuztuaren 26a).

Aurtengoa urte berezia izan da guretzat, talde asko ez baitira 25 urte ospatzera iristen. Aurten herrian eskainitako emanaldi guztiak herriko beste taldeak gonbidatuz izan dira: Txistulari Banda; Ttarla Dantza Taldea; Goiz Eguzki, Ozenki, "Hernani" Musika Eskolako "Da Capo" eta Parrokiako abesbatzak, eta herriko Musika Banda. Eta Santa Ageda bezperako kale bueltan urte hauetan Kantuz abesbatzatik pasa diren guztiei gurekin irteteko gonbidapena luzatu genien 80 pertsona baino gehiago elkartuz. Ospakizunekin bukatzeko, apirilean kruzero bat egin genuen bertan emanaldi bat eskainiz. 25 urte hauetan KANTUZ Abesbatzan berrehun lagun baina gehiago pasa badira ere, gaur egun berrogei lagun inguruk osatzen dugu korua, eta horietako hamarrek, hasieratik jarraitzen dute kantari. Guztiok ere, hasierako garaiko ilusio eta gogo bera mantentzen dugularik.



2015eko apirilean eginiko kruzeroan kantatu zuten herriko kantariak.

Eta ez genuke lerro hauetatik zabaltzen zaigun aukera pare gabe hau utzi nahi, beti bezala, kantatzea gustuko duen jendea gurera animatuz.

CRÓNICA 2013ko KRONIKA (II)

UZTAILAK / JULIO

- Da inicio la campaña veraniega de estancias temporales destinada a personas mayores (Patronato Municipal de Salud y Bienestar Social).
- La Diputación destina 2,3 millones a reforzar ocho líneas de autobús. Se mejoran las conexiones, entre otras, las de Hernani con otros municipios de la comarca, Usurbil principalmente. Ospitaletara doan autobusa, ordu erdiro.
- Argazkilaritza ikastaroa Ikusi T ikasi zentroan.
- Actividades varias organizadas por Banaiz bagara durante el verano.
- Piraguismo ikastaroak Kaxkardi Kirol Elkartek antolatuta.
- Yoga klaseak Masustan.
- Saskibaloia probatzeko aukera kiroldegian.
- Los Ayuntamientos vascos advierten de que se agota el dinero de las ayudas de emergencia; Hernani destina un importe de 128.885,85 €.
- Igeriketa. Udako probetan sasoi bete-betean daude Pero Alfaro, Luis Goñi eta Iñigo Goñi.
- Chillida-Leku. Udako lehiaketa Eduardo Chillida gogoratzeko: argazkiak, bideoak eta idazlanak entrega daitezke irailaren 15era arte.
- Inaxio Lizeagak eginiko saskiak salgai, "Congelados Jaione" dendan, Angel Olanen proiektuak laguntzeko. Hernaniko argazkiak salgai Irizar eta Zinkoenea tabernetan, Wukro Elkarteari laguntzako.
- Exposición de pintura de Marisa Prego, en Antziola kafetegia.
- Santa Barbarako bazterrak garbitzen dira: lau tona zabor inguru jaso dira.
- Sukaldaritza ikastaroa udan: Senegal, Maroko, Peru eta Kolonbiako platerak prestatuko dira (AMHER).
- Turismo irteera gidatuak uztailean eta abuztuan.
- DAITEKE Zerbitzuak udan ere ikastaro eta tailerrak antolatzen ditu langabeentzat.
- Buena temporada de los representantes de Txantxangorri en los distintos torneos y certámenes de pesca.
- Abierto el plazo de inscripción para el sorteo que ETXEBIDE llevará a cabo de las viviendas en construcción en Sagastiya. Urtea bukatu aurretik zozketatuko dira.
- Antton Zabala eskalatzaileria hernaniarra Errusiara, Munduko Kopako zirkuiturako puntuagarria den txapelketara.
- Convenio de colaboración entre la Diputación y los Ayuntamientos de Buruntzaldea para llevar a cabo estrategias de desarrollo territorial.
- Miguel Usabiaga publica "El alcalde de Floridsdorf", sobre la evasión de presos internacionales de la prisión de Burgos en 1949. Se trata de un relato basado en los recuerdos de su padre Marcelo Usabiaga.

Uztailak 1 julio

- Hernanin 1.433 langabe daude.
- Udaleku irekiak uztailaren 24ra arte, Ereñotzun uztailaren 26ra arte

Uztailak 1-5 julio

- Donosti Cup. Hernaniko bederatzi taldek parte hartzen dute.
- Arraun ikastaroa (Hernani Arraun Elkartea).

Uztailak 2 julio

- Odola emateko zita osasun zentroan.

Uztailak 3 julio

- Asfaltatze lanak herriko hainbat puntutan.
- Buruntzaldeko alkate eta zinegotziek, baita Hernanikoek ere, 10 konpromiso hartzen dituzte presoek eskubideen alde egiteko.
- Kontzentrazioa, hiru urte direla Txaro Román hil zutela. Su asesino se enfrenta a una pena de 34 años de prisión.

Uztailak 4 julio

- Paroa lan hitzarmen kolektiboaren alde (LAB).

Uztailak 5 julio

- Kontzentrazioak Zinkoenean: "Euskal presoak etxera" (LAB) eta "Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Uztailak 5-7 julio

- Martindegiko Festak.

Uztailak 6 julio

- Remonte. Partido del Torneo San Fermín (de Pamplona) en Galarreta.

Uztailak 6-7 julio

- Atletismoa. Maialen Pavón eta Manex Iradi Espainiako Txapelketan, kadete mailan, Granollersen.

Uztailak 7 julio

- Sendabelarrak ezagutzera Hendaiara (Sasoiko Zentroa).

Uztailak 8 julio

- FIARE Banku Etikoaren aldeko taldea sortzeko bilera udaletxean.
- Alberto Plazaren argazkiak ikusgai Goiz Argi tabernan.

Uztailak 8-12 julio

- Dantza Garaikide ikastaroa Biterin.

Uztailak 8-19 julio

- Kirol Udalekuak.

Uztailak 11 julio

- "Las dos D", Habanatik etorritako bi ahizpen kontzertua Milagrosan.

Uztailak 12 julio

- Enkartelada herrian barrena: "Errepresaliatuak etxera" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Uztailak 12-13 julio

- Gavarni-Pimenè-Gedre irteera (Mendiriz Mendi).

Uztailak 13 julio

- Protesta banketxeen aurrean, Urbietan kalean (Hernaniko Kaleratzeak STOP).
- Modelo desfilea Chillida-Leku museoan.
- Euskal Selekzioko Mendi Lasterketako korrikalari herritarren zalantzak argitzen dituzte “Ibai Mendi” dendan.

Uztailak 14 julio

- Sendabelarrak ezagutzera Uli mendira (Sasoiko Zentroa).
- Xabat Aizpiolea eta Lander Muñoa hernaniarrak, Rotheko Iron Man proban.

Uztailak 15-26 julio

- Udaleku ibiltariak Bortzirietan (DOBERA).
- Debido a obras de mejora del servicio de IBERDROLA en la zona, cierres intermitentes en el túnel de Benta Berri (Florida auzoa).

Uztailak 16 julio

- Kaxkoko Karmen Jaiak. Maria Dolores Amonarraiz da alkate berria; Maite Iradi omendua.
- Francia entregará a Ibon Fernández Iradi por el asesinato en 2001 del ertzaina Iñaki Totorika.
- Umeen ohial eta pixoihalen inguruko tailerra Sasoiko zentroan.

Uztailak 19 julio

- Kontzentrazioa Zinkoenean: “Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera” (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).
- *Turlach* taldea Kixkal tabernan.

Uztailak 20 julio

- Gaixotasun arraroei buruzko hitzaldia PAUSOKA Elkartearen lokalean.

Uztailak 20-21 julio

- Madalena Festak Lizeaga auzoan.

Uztailak 21 julio

- Sendabelarrak biltzera Miramonera (Sasoiko Zentroa).

Uztailak 22 julio

- Esku pelota. Paul Ojuel Errenteriako Txapelketako irabazle.

Uztailak 23 julio

- Galarreta comienza a programar los martes, durante la temporada estival.

Uztailak 26 julio

- Lore eskaintza Antziolako Bidebieta plazan Fernando Ros “Naparra”ren omenez (duela 27 urte hil zen).
- Preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko kontzentrazioa Axalako kruzean (HERRIRA Mugimendua).
- Hernaniko Akelarrea Soraluzeko festetan.

Uztailak 27 julio

- III. Buruntzaldeko Txapelketa. Sei pilotari

hernaniar finaletan, kiroldegiko frontoian.
Alain Agirre (infantil) da irabazle bakarra.

Uztailak 30 julio

- Santa Barbarako Landa Parkea egokitzeak exekuzio proiektua onartzen du Plenoak.
- Altsasutik Donostiara doan AHTren kontrako bizikleta martxa Hernanitik.

Uztailak 31 julio

- San Inazio festa Santa Barbara (Morkaiko Kultur Elkartea).

ABUZTUAK / AGOSTO

- Abuztuko arratsaldeetan eta larunbat eta jaiegunetan kiroldegia itxita.
- Igeriketan hasi nahi dutenentzat, heldu zein umeentzat, ikastaroak udal kiroldegian.
- Herri barruko autobusak ordutegi berezia du abuztuan.
- Garbigunea goizez irekita, arratsaldeetan itxita.
- Yoga egiteko aukera Masustan.
- Esku pilota. 2012/13 denboraldiko balorazioa. Hernanik 20 txapela irabazi ditu, 36 final jokatu.
- Isidro Esnaola director del área de “Servicios y Educación tributaria” de la Hacienda Foral de Gipuzkoa.
- Akolako *Putzuzar* eta *Askaxar* iturburuak berritu dituzte.
- Lur Denok Elkartek baratza ekologikoa lantzeko deialdia ematen du.
- Herriko triatletak fin dabilta parte hartzen duten probetan.
- Sidrerías de Hernani (Iparragirre y Rufino) de visita en Alemania, en la feria Apfelwein Festival, feria en torno a la producción de sidra.
- Aitor Ruiz de Eginoren obrak ikusgai Frantzian, Dordoinan.
- “Donostialdea Ekinean” Proiektua. Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzak eta aholkularitza zerbitzua.
- *Bitartean* folk taldearen kontzertuak Galesen.

Abuztuak 1 agosto

- Hernanin 1.446 langabe daude.

Abuztuak 2 agosto

- Inicio del Campeonato Individual de Remonte-Gran Premio KUTXA 2013.
- Kontzentrazioak Zinkoenean: “Euskal presoak Euskal Herrira” (LAB), eta “Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera” (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Abuztuak 4 agosto

- Osiñagako bizilagunak Arcachonera.

Abuztuak 6 agosto

- Odola emateko eguna.
- Pilota. Getariako Txapelketa: Urkizu eta Aizpitarte txapeldun.

Abuztuak 9 agosto

- Enkartelada plazatik abiatuta (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Abuztuak 10-17 agosto

- Donostiako Aste Nagusia. Pasealeku Berriko XLV. Zeharkaldian Peru Alfaro eta Luis Goñi batera ailegatzen dira (abuztuaren 15ean).

Abuztuak 11 agosto

- Detenido en Hernani un hombre de 49 años, por robar gasoil de un camión aparcado en un área de servicio.

Abuztuak 15 agosto

- Un helicóptero se ve obligado a tomar tierra en Hernani, en la zona deportiva de Karabel, al quedarse sin gasolina.

Abuztuak 16 agosto

- Kontzentrazioa Zinkoenean: “Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera” (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Abuztuak 18 agosto

- Urnietako 83 urteko gizon baten gorpua aurkitu dute Santa Barbarako lakuan.

Abuztuak 19-23 agosto

- Asfaltatze lanak herriko hainbat kaletan: trafikoa aldatzeko.

Abuztuak 22 agosto

- Orchestre International du Vetex taldearen emanaldia herrian zehar (BERRIAK).

Abuztuak 23 agosto

- Kontzentrazioa Zinkoenean: “Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera” (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Abuztuak 23-25 agosto

- Portuko San Joan Txiki Jaiak. Kalez kale kantarikoak bertan dira (abuztuaren 24an).

Abuztuak 25 agosto

- Luis Goñi se impone, por quinta vez, en la Travesía de la Isla (Donostia).
- Peru Alfaro campeón de España de Triatlón de media distancia, al imponerse en la prueba II Calima Desafío Posadas.

Abuztuak 26 agosto

- Debido a las obras a realizar en él, se cierra al tráfico de vehículos el túnel bajo las vías del tren en Portu auzoa.
- Droga trafikarekin lotuta, miaketak Hernanin.

Abuztuak 27 agosto

- Obras de mejora de la red de abastecimiento de agua a Portu auzoa-Osiñaga bailara (paros intermitentes en el suministro).
- Plenoak onartuta, Ekogor, Estubegi eta Limuri, Galarretako eremu berriak.

Abuztuak 28 agosto

- Eraso Etxeraren egoitza.

Abuztuak 29 agosto

- Ioritz Arrieta eta Eneko Aizpitarte aurrez aurre Dinastia Etxabe Txapelketako finalean, Zetean. Ioritz Arrieta irabazle.

Abuztuak 30 agosto

- Esku pilota. Lau hernaniar Donostiako *Patxi Montes* Txapelketako finalean, Trinitate plazan.
- Parot Doktrinari (197/2006 doktrina) amaiera emateko, ekimen ibiltaria Hernanira ailegatzen da, plazara: “Herriarren epaia” (HERRIRA Mugimendua).

Abuztuak 30-irailak 1 septiembre

- Santiagomendira asteburua pasatzera (Gazte Asanbladak).

Abuztuak 31 agosto

- Bigarren eskuko azoka Atsegindegin.

IRAILAK / SEPTIEMBRE

- Hernanin 1.461 langabe daude.
- Estitxu Eizagirre *Argiako* zuzendari berria.
- Ikastaro berriak kiroldegiko igerilekuan.
- ROMI Etxea Proiektua: etxebizitza duin eta merkeak eraikitzeko ikastaroa (Hernaniko Udalaren laguntzarekin). los 149 rumanos que viven en el poblado sito entre Astigarraga y Hernani (Txoritegi), participan en este proyecto de integración. URAk eskatzen du errumaniar komunitateko eraikinak gelditzeko eta kentzeko, oso inundagarria baita lekua. Los Ayuntamientos de Astigarraga y Hernani se reafirman en el plan de intervención. EAJ-PNVk eta H1!k diote: “Erresponsabilitate falta da errumaniarrak dauden lekuari oniritzia ematea”. PSE-EEK ere, ez du bat egiten proiektuarekin.
- Hiru hernaniarren lanak ikusgai Mendikotako Algareki galerian (Zuberoa), guztira Euskal Herriko 31 artisten lanak erakusten dira.
- Eusko Jaurilaritza 36.059 euroko laguntza ematen dio Hernaniko KRONIKARI.
- El Tribunal Vasco de Cuentas Publicas censura contrataciones directas en Garbitania, contrataciones llevadas a cabo, entre otros, por el Ayuntamiento de Hernani.
- Udal Euskaltegia Facebook eta Twitterren.
- IES Hernani BHI Institutua. Langabeentzat hainbat ikastaro martxan.
- Udalak lau foro antolatzen du herriarrek kirol ekipamenduei buruz. El PSE-EE critica la “falta de liderazgo” de BILDU en el ámbito del deporte.
- Bost lanpostu eskaintzen ditu Udalak, Gipuzkoako Diputazioarekin lankidetzan, bost hilabeterako (bi igeltsero, bi landazain eta peoi bat).
- Triatlona. Euskal Herriko denboraldiaren amaiera; txukun aritu dira Zumitza Taldeko triatleta hernaniarrak.
- Hernaniarrak Donostiako Zinemaldia. Zinemira

Sailean MOZTU Filmak-en “Izenik gabe 200x133” dokumentala, eta Maite Larburu “Zela Trovke” filmean.

- BTT Jaitsiera. Denboraldi bikaina egiten ari dira Aritz eta Xabier Urdanpilleta anai ereñotzuarrak.
- Lizeagatik institutura doan bidegorriaren obrak martxan; 45 bat aparkaleku desagertuko dira.
- Esku pilota. Ioritz Arrietak Oñatiko Torneoa irabazten du, eta Paul Ojuelek Aizarnazabalgoa.

Irailak 1 septiembre

- Osiñagako bizilagunak eguna pasatzera Baztan aldera.

Irailak 1 / 8 septiembre

- Bost hernaniar Kontxako Banderan.

Irailak 3 septiembre

- Odola emateko eguna.

Irailak 4 septiembre

- ORONA sortu zutenak omendu, eta Galarretako ORONA-IDeO eraikin berriaren inaugurazioa.

Irailak 5 septiembre

- Después de varios meses cerrada, abierta la “Cuesta de la Muerte” para el tráfico.

Irailak 6 septiembre

- Kontzentrazioa(k) Zinkoenean: “Euskal presoak etxera” (LAB) eta “Gaixo larriak eta kondena osoa bete duten presoak etxera” (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).
- Hernaniko Bertso Eskolako Asier Azpirozek Zarautzeko *Lizardi* Saria irabazten du.

Irailak 6-7 septiembre

- Stock Azoka Atsegindegin (BERRIAK).

Irailak 6-8 septiembre

- Zikuñagako Festak.
- Auzo Eguna Latsunbeberri eta Marielutsen.

Irailak 7 septiembre

- Gipuzkoako I. Orientazio Proba Aralarren, hernaniarrek antolatuta.
- Festa eta Hernaniko hiru talderen emanaldia Orkolagan, Anboto tabernaren urteurrena dela eta.
- Final de Campeonato Individual de Remonte-Gran Premio Kutxa 2013, en Galarreta. Urriza txapeldun.
- Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia Atsegindegin (“Hernani” Musika Eskola Publikoa).

Irailak 8 septiembre

- XII. Argazki Rally Digitala. Argazkiak ikusgai Biterin irailaren 19tik urriaren 5era arte. Sari banaketa irailaren 27an.
- Eva Esnaola Zaragozako “Bonberoek” Lasterketako txapelduna, beteranoetan. Hernaniko Atletismo Taldeko zazpi emakumek parte hartzen dute.
- Luis Goñik irabazten ditu Kontxako Badiako proba, eta Gipuzkoako Liga.

Irailak 9 septiembre

- Mondragón Unibertsitatea abre su Campus universitario, en Galarreta.

Irailak 9-17 septiembre

- AHTko obrak direla eta, Arrilimoiko bidea itxita, Osiñagan.

Irailak 11 septiembre

- Ordiziako Euskal Jaiak. Maddi Iradi (Zabaloenea baserria) fruten konkurtsoko irabazle.

Irailak 13 septiembre

- Auzora 50 urte argindarra ailegatu zela ospatzeko, 50 minutuko itzalaldia Lizeagan.
- Donostiako Piraten dokumentala gaztetxean (Gazte Asanblada).
- Enkartelada herrian barrena, plazatik abiatuta: “Errepresaliatuak etxera” (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Irailak 14 septiembre

- Ereñotzuko hileroko mendi irteera, Latxeko ibilbidea.
- Kalea kale kantari.
- Erromeria (San Joan Konpartsa).

Irailak 14-15 septiembre

- Euskal Jaiak... Sagarra eta Sagardoaren Eguna (TOLAREA); XV. Gazteen Trikitixa Txapelketa. (Kriskitiña Dantza Taldea).
- Salida a Pic de Ger (2.613 m.) organizada por Mendiriz Mendi.

Irailak 14 / 19 – 22 / 28 septiembre

- Mugikortasun Astea. Goizeko ibilaldia (Goiz Eguzki). Zirkuituak Tilosetan. Kirol egokitua Atsegindegin (KOXKA Elkarte). Patinetan ibilbidea. Autorik gabeko eguna: bizikleta festa... (bigarren eskuko azoka berezia).

Irailak 15 septiembre

- XVII. Urnietako Herri Bira. Karen Ortiz de Guinea azkarrena emakumezkoetan.

Irailak 16-22 septiembre

- Wukroekin Elkartasun Astea. Lierni Fernández eta Albert Rosen hitzaldia, biak Wukron izan dira. Elkartasun bazkaria Txantxangorri elkartean. Aurten ere, ederki erantzun dute herritarrek!

Irailak 17 septiembre

- Gazte Txokoa. Ongi etorri festa (kurtso berriaren inaugurazioa).

Irailak 17 / 19 septiembre

- AEK-Zilegi Eskola: Sendabelarren ikastaroa(k).

Irailak 17-20 septiembre

- Ur biltegian garbiketa eta konpontze lanak direla eta, ur mozketak Ereñotzun.

Irailak 18 septiembre

- “Ereñotzu berriketan”. Asteazkeneko biltzen dira

65 urtetik gorakoak Ereñotzuko auzo etxean, hitz egiteko, memoria lantzeko ariketak egiteko,...

- FIARE Banku Etikoa. Bilera Biterin, proiektua Hernanin zabaltzeko asmoz.

Irailak 19 septiembre

- Udalak boluntario talde bat osatu du liztor asiarraren habiak suntsitzeko. Liztor kabiak hondatzeko sistema berri bat erabiliko da aurrerantzean, haga luze batekin zulatu eta pozoinduko dira.
- Urteko batzarra Zubipen (C D Hernani).

Irailak 20 septiembre

